



(Testu finkatua – 2017-04-12ra arte egindako aldaketak barneratzen ditu)

AGINDUA, 2012ko abuztuaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duena.

Uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko langile funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituenak, 17.1 artikuluan ezartzen duenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berariazko araudi baten bidez zehaztuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko hautagaien zerrenda kudeatzeko jarraibideak, eta, horretarako, arau hori konfiguratzeko oinarritzko irizpideak ezartzen ditu artikuluko horretan zehar.

Era berean, baliabideen kudeaketa eraginkorra eta erabilera optimoa bermatzeko, hezkuntza-sistemak eskatzen dituen premiak kontuan izanda eta horren kalitatearen mesedetan, lehenago aipatutako erabakiak ezartzen du jarraibideak aldean artean negoziatuta eguneratuko direla, eta baldintza hori negoziazio sektorialaren bidez bete da.

Jarraibide horien xede orokorra da Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle publikoen aldi baterako estalduren zerbitzu bat eskaintzea, kalitate- eta eraginkortasun-bermeekin, eta publizitatearen, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioei jarraituz, ikastetxeen eskariari erantzun emateko.

Gainera, agindu honen bidez, batetik, zerrendaren kudeaketan zer elementuk parte hartzen duten (esparru pertsonala, sartzeko baldintza orokorrak, baremazio-irizpideak, prestatzeko prozedurak eta baldintza orokorrak, funtzionamendua...) zehaztu nahi da, eta, bestetik, zerrenda horiek modu eraginkorrean, bateratuan eta eragingarrian kudeatzeko erraztasunak eman.

Halaber, kontuan hartu behar dira Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman, oro har, eta ikastetxeetan, zehazki, irakasleek urtero bete beharreko postuen berezitasunak. Horregatik, urteko beharrak estaltzeko prozedurak bat etorri behar du ikasturte bakoitzaren hasieran postuak esleitzeko egiten den prozedurarekin; azken horrek, uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak adierazten duen eran, berariazko araudia dauka.

Beste alde batetik, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzen zerrendak irakaskuntza horien egungo araudira egokitzen ditu agindu honek, azken urteotan izan dituzten aldaketa sakonek eragindako beharrei erantzute aldera. Aldaketa horien artean, adibidez, Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloak aldatu eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide Irakaskuntza bihurtu dira, eta Diseinuko Goi Ikasketak ezarri.

Beste esparru batean, 2012ko otsailaren 7an, erlijioiko irakasleen mahai sektorialak aho batez onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetako erlijioiko ordezkapenentarako hautagaien zerrendak hautagaien zerrenda orokorrean sartzea.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau



XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da agindu honen aplikazio-eremuan sartzen diren lanpostuetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautapen-prozesuak arautzea, zerbitzu horiek emateko hautagai direnen zerrendak osatzea eta kudeatzea, eta pertsona hautatuak izendatzea edo kontratatzea.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Jarraian azaltzen den 2. atalean aipatzen diren lanpostuak bete nahi dituzten hautagaien zerrendetan parte hartu nahi duten pertsonak osatzen dute agindu honen aplikazio-eremu subjektiboa:

a) Bitarteko funtzionario izendatzeko edo lan-kontratu ez finkoa izateko hautagaiak.

b) Erlijioko irakasle gisa zerbitzu emateko hautagaiak, aldi baterako lan-kontratuarekin.

2.– Agindu honen aplikazio-eremu objektiboa da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren mendeko irakasle-postuak aldi baterako estaltzea, artikulua honen 1. atalean aipatutako pertsonak bete behar dituztenean aldi baterako.

3.– Zailtasun edo interes berezikotzat jotako irakasle-postuak ere bete edo estaliko dira, Agindu honetan ezarritako baldintzen arabera. Kalifikazio hori jasoko dute Lanpostuen Zerrendan zailtasun berezikotzat jota daudenek.

4.– Agindu honetatik kanpo gelditzen da Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoari gordetako postuen aldi baterako estaldura.

3. artikulua.– Hautagaien zerrendak eratzea eta horien indarraldia.

1.– Aurreko artikulua 1. atalaren a) idatzi-zatian aipatutako hautagaien zerrendak espezialitatearen arabera osatuko dira, honako maila hauetan banatuta, adierazten diren taldeekin bat datozenak:

a) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza (1. taldea).

b) Bigarren Hezkuntza (2. taldea) eta Lanbide Heziketa (3. taldea), honako irakaskuntza hauek barne hartzen dituena:

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

– Batxilergoa.

– Lanbide Heziketa.

c) Hizkuntzen irakaskuntzak (4. taldea).



d) Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzak (6. taldea).

e) Musikako irakaskuntzak (7. taldea), honako irakaskuntza hauek barne hartzen dituenak:

– Espezialitate teorikoak.

– Instrumentu-espezialitateak.

f) Arte Dramatikoaren (8. taldea) eta Dantzaren (9. taldea) Goi-mailako Irakaskuntza Artistikoak.

g) Prestakuntzari Laguntzeko eta Hezkuntza Berrikuntzako (Berritzegune) zentroak eta irakaskuntza-laguntzako beste zerbitzu batzuk.

II. eranskinean jasotzen dira mailak eta horiei dagozkien espezialitateak.

2.–Aurreko artikulua 1. atalaren b) idatzi-zatian aipatutako hautagaien zerrendak irakaskuntza-mailaren arabera osatuko dira.

3.– Behin zerrenda bat osatutakoan, indarrean egongo da agindu honetan aurreikusitako arrazoiren bat dela eta iraungitza jotzen den arte; halere, aldaketak egin ahal izango dira, edo beste hautagai batzuk sartu edo daudenak kanporatu, agindu honek xedatutakoari jarriki hala egin behar bada.

4. artikulua.– Hautagaien zerrendak eratzeko eta horietan sartzeko prozedurak.

1.– Langileen Kudeaketako Zuzendariaren ebazpen bidez geratuko dira eratuta hautagaien zerrendak.

2.– Honela sartu ahal izango dira pertsona interesdunak hautagaien zerrendetan:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deitutako zerrendak irekitzeko prozeduretan parte hartuz.

b) Dagoeneko zerrendaren batean dauden pertsonen dagokienez, birbarematze-prozesuan beste espezialitate batera sartzeko aurreikusitako aukerak baliatuz.

c) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak irakasleen kidegoetan sartzeko deitzen dituen hautapen-prozeduretako oposizio-probak gaindituz.

3.– www.hezkuntza.net web-orrian argitaratuko dira une bakoitzean indarrean dauden hautagaien zerrendak, bai eta horietan parte hartzeko prozedurak eta horiek aldatzekoak eta birbarematzekoak ere.

5. artikulua.– Zerrenden arteko lehentasuna.

Honako irizpide hauei jarraiki ordenatuko dira zerrendak haien artean:

Lehenbizi, espezialitateko zerrenda orokorra erabiliko da. Urteroko birbarematze-prozesutik datorren zerrenda da hori.

Bigarrenik, a) zerrenda berezia erabiliko da, espezialitateko hautapen-prozesuetako probak gainditu dituzten pertsonekin osatutakoa.

Hirugarrenik, b) zerrenda berezia erabiliko da; espezialitateari, hizkuntza-eskakizunari eta prestakuntza pedagogikoari eta didaktikoari dagokionez eskakizun guztiak betetzen dituzten pertsonaz osatuta dago, eta ikasturtean zehar irekitze berriak egon direlako eratu da.

Laugarrenik, c) zerrenda berezia erabiliko da; espezialitateari eta prestakuntza pedagogikoari eta didaktikoari dagokionez eskakizun guztiak betetzen dituzten pertsonaz osatuta dago, eta aurreko ikasturteetan zehar irekitze berriak egon zirelako eta horiek zerrenda orokorrean sartu ez zirelako eratu zen.



Bosgarrenik, d) zerrenda bereizia erabiliko da; espezialitateari eta prestakuntza pedagogikoari eta didaktikoari dagokionez eskakizun guztiak betetzen dituzten pertsonaz osatuta dago, eta ikasturtean zehar irekitze berriak egon direlako eratu da.

Seigarrenik, e) zerrenda bereizia erabiliko da; espezialitateari eta hizkuntza-eskakizunari dagokionez eskakizun guztiak betetzen dituzten pertsonaz osatuta dago, eta aurreko ikasturteetan zehar irekitze berriak egon zirelako eta horiek zerrenda orokorrean sartu ez zirelako eratu zen.

Zazpigarrenik, f) zerrenda bereizia erabiliko da; espezialitateari eta hizkuntza-eskakizunari dagokionez eskakizun guztiak betetzen dituzten pertsonaz osatuta dago, eta ikasturtean zehar irekitze berriak egon direlako eratu da.

Zortzigarrenik, g) zerrenda bereizia erabiliko da; espezialitateko eskakizunak soilik betetzen dituzten pertsonaz osatuta dago, eta aurreko ikasturteetan zehar irekitze berriak egon zirelako eta horiek zerrenda orokorrean sartu ez zirelako eratu zen.

Bederatzigarrenik, h) zerrenda bereizia erabiliko da; espezialitateko eskakizunak soilik betetzen dituzten pertsonaz osatuta dago, eta ikasturtean zehar irekitze berriak egon direlako eratu da.

6. artikulua.– Hautagaien datuak eta aukerak.

Zerrendan, hautagai bakoitza identifikatzeko datuez eta horien puntuazioaz gainera, hautagaiek honako gai hauen inguruan egindako aukerak jasoko dira:

a) Eman beharreko espezialitateak.

Espezialitate jakin bat emateko, horri dagokion kualifikazioa eduki beharko da, 10. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

b) Eman beharreko profila.

Gaituta dauden hizkuntza-eskakizun bateko edo guztietako postuak hautatu ahal izango dituzte.

c) Lurralde-eremua.

Agindu honen IV. eranskinean aipatzen diren guneren bat edo guztiak hautatu ahal izango dituzte. Aukera hori lehentasunezkoa izango da lanpostuak aldi baterako estaltzeko aukera esleitzeko orduan.

Halaber, lurralde historikoetako bat hautatu beharko dute derrigorrean, eta lanerako prest geratuko dira bertan. 32.7. artikuluan jasotako egoeran erabiliko da lurralde-aukera.

Lurralde historikorik aukeratzen ez badute, lurralde historiko guztiak hautatu direla ulertuko da. Ez badute gunerik aukeratzen, aukeratutako lurralde historikoan edo lurralde historikoetan sartzen diren gunek guztiak hautatzen dituztela ulertuko da.

Erljio-zerrendetarako, hautagaiek aukeratutako lurraldeak soilik izango dira kontuan.

d) Lanaldi osoko edo murriztuko lanpostuak

Lanaldiaren arabera hautatu ahal izango dituzte lanpostuak:

– Lanaldi osokoa soilik.



- Lanaldi murriztukoa soilik.
- Lanaldi osokoa zein murriztukoa.

Lanaldirik aukeratzen ez badute, lanaldi osoko lanpostuak soilik eskuratu nahi dituztela ulertuko da.

Hautagaiek lanaldi desberdinak aukeratu ahal izango dituzte zonalde edo lurralde batean edo bestean. Dena den, lurralde baterako egindako aukera lurralde horretako zonalde guztietan aplikatuko da.

- e) Irakaskuntza hirueledunak/HMH.

Aukera hori hautatu ahal izateko, 73/2012 Dekretuak, maiatzaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan zein pribatuetan arloak edo irakasgaiak atzerriko hizkuntzetan emateko bete beharreko hizkuntza-eskakizunak ezartzen dituenak, xedatutako eskakizunak bete beharko dituzte hautagaiek; edozein espezialitatetakoak izan daitezke.

- f) Zeinu-mintzaira.

Aukera honetara bil daitezke «Zeinuen Hizkuntzazko Komunikazioko» hiru mailetakoren bat egiaztatzen dutenak edo «Zeinuen Hizkuntzako Interprete» gisa aitortuta daudenak.

II. KAPITULUA

ZERRENDETAN SARTZEKO ESKAKIZUNAK

- 7. artikulua.– Hautagaien zerrendetan sartzeko eskakizun orokorrak.

Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntzako lanpostu publikoak eskuratzeko bete beharreko eskakizun orokorrak bete beharko dituzte pertsona interesdunek.

a) Espainola edo Europar Batasuneko estatu kideren batekoa izatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estatu batekoa izatea.

Herritar espainolen eta Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideak eta ezkontideen ondorengoak ere sar daitezke, bai eta Europar Batasunak sinatu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunen ondorioz langileen zirkulazio librea aplikatzekoa den estatu kideetako herritarren ezkontideak eta ezkontideen ondorengoak ere, dagokion itunak horrela aurreikusten badu, horien nazionalitatea edozein dela ere; betiere, ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude, eta ondorengoei dagokienez, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo gorakoak baina gurasoen mende bizi badira.

b) Nazionalitate espainola edo hizkuntza espainoleko herrialde bateko nazionalitatea ez duten hautagaiek gaztelaniaz badakitela egiaztatu behar dute Hizkuntza Eskola Ofizialek atzerriarrentzat emandako gaztelaniako maila aurreratuko ziurtagiria aterata, edo atzerriko hizkuntza gisa gaztelaniako diploma (goi-mailakoa), edo Filologia Hispanikoko, Erromanikoko edo Itzulpengintzako eta Interpretazioko lizentziatu-titulua (gaztelaniako espezialitatekoa) edukita. Ez dute baldintza hori bete beharko ziurtagiri akademiko baten bidez hautatutako espezialitatean eskatutako titulazioren bat lortzeko ikasketa guztiak Espainiako estatuan egin dituztela justifikatzen duten hautagaiek.



c) Hemezortzi urteak beteta izatea eta erretirorako oro har ezarritako adina beteta ez izatea.

d) Euskara dakitela egiaztatzea Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B2 edo C1 mailan.

Maila horiek egiaztatzeko, 1 edo 2 hizkuntza-eskakizuna aurkeztu beharko da, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuak arautzen duena, edo legez profil horiekin parekatzen diren hizkuntza-ziurtagiri homologatuak aurkeztu, edo 47/2012 Dekretuak, apirilaren 3koak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzen eta euskarazko tituluekin eta ziurtagiriekin egiaztatzeko salbuespenak ezartzen dituenak, aipatzen duen egoera egiaztatu beharko da.

Zerrenda berriak irekitzerakoan, eskakizun hori kendu ahal izango da, baldin eta espezialitate jakin batzuetan, aurreikuspenen arabera, ezin izango badira postuak eskakizun hori betetzen duten hautagaiekin bete.

e) Ez izatea aukeratu diren espezialitateei dagozkien eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo mugapen fisiko edo psikikorik. Medikuen ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatuko da, eta ordezkapen bat egiteko deitzen dioten lehenengo aldian aurkeztu beharko du hautagaiak.

Hautagaien zerrenda kudeatzearekin lotutako edozein prozesutan ezgaitasun-egoera baliatzen duten pertsonak Foru Aldundien Gizarte Ongizateko sailen, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren edo, hala badagokio, dagozkion autonomia-erkidegoaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, izaera hori dutela eta hori dagozkion lan eta funtzioak betetzearekin bateragarria dela adieraziko duena.

f) Diziplina-espediente baten bidez inongo herri-administrazioetako zerbitzutik bereizi ez izana, eta zeregin publikoetan jarduteko desgaituta ez egotea.

Nazionalitate espainola ez duten hautagaiek ere haien estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina-zehapenik edo zigorririk ez dutela egiaztatu beharko dute.

8. artikulua.– Hautagaien zerrendetan sartzeko eskakizun espezifikoak.

1.– Jarraian zehazten diren tituluak izatea honako zerrenda hauetako taldeetarako:

a) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza: maisu/maistraren, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakaslearen edo Lehen Hezkuntzako maisu/maistraren titulua, edo dagozkion gradu-titulua.

b) Bigarren Hezkuntza, Hizkuntza Eskola Ofizialen irakaskuntzak, Musika irakaskuntzak, Arte Dramatikoaren eta Dantzaren Goi-mailako Irakaskuntza Artistikoak eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzak (Arte Plastikoetako eta Diseinuko Kidegoetako irakasleentzako gordetako ikasgaiak): doktorearen, lizentziadunaren, ingeniariaren, arkitektoaren titulua edo dagozkion gradu-titulua edo irakasteko balio duten titulu baliokideak.

c) Lanbide Heziketa eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoari eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lantegiko maisu-maistren kidegoari gordetako irakasgaiak): diplomatuen, arkitekto teknikoaren edo ingeniari teknikoaren titulua, edo dagozkien gradu-tituluak, eta goi-mailako teknikariaren titulua, edo irakaskuntzaren ondorioetarako baliokide diren beste titulu batzuk.

2.– Dagozkion espezialitatea emateko prestakuntza, 10. artikuluan xedatutakoari jarraiki.



3.– Maiatzaren 3ko Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2. artikuluan aipatzen den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa izatea. Ondorio horietarako, prestakuntza pedagogiko eta didaktiko hori egiaztatzeko irakaskuntza bakoitzean ezartzen den erregulazioa izango da kontuan.

Prestakuntza pedagogiko eta didaktiko horren baliokide modura onartuko da irakasle-lana; horretarako, egiaztatu beharko da 2008/2009 ikasturtearen amaiera baino lehenago irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoetan edo pribatuetan lanean jardun dutela bi ikasturte osotan edo, hori egiaztatzen ez badute, 12 hilabete jarraitutan edo etenetan; horrez gain, egiaztatu beharko dute denbora horretan azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuak arautzen dituen irakaskuntza-espezialitateetako mailan eta irakaskuntzetan jardun dutela.

Bestalde, ez dute baldintza hori bete beharko honako titulu hauetakoren bat dutenek: maisu- edo maistra-titulua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle-titulua, Lehen Hezkuntzako maistra- edo maisu-titulua, Pedagogiako lizentziatura eta Psikopedagogiako lizentziatura eta pedagogia eta didaktikako prestakuntza jasotzen duen lizentziatura edo titulu baliokidea; titulu horiek guztiek 2009ko urriaren 1a baino lehenago lortutakoak izan beharko dute.

Irakaskuntza bakoitzean ezarritako erregulazioaren arabera, baldintza hau eskatuko zaie agindu hau indarrean jarri ondoren gauzatzen diren zerrendak irekitzeko prozesuetan zerrenda batean sartzea eskatzen duten hautagaiei, eta agindu hau indarrean jarri ondoren egingo diren zerrenda birbarematzeko prozesuetan zerrenda berri batean sartzea eskatzen dutenei.

Zerrenda berriak irekitzerakoan, eskakizun hori kendu ahal izango da, baldin eta espezialitate jakin batzuetan, aurreikuspenen arabera, ezin izango badira postuak eskakizun hori betetzen duten hautagaiekin bete.

9. artikulua.– Erljioko espezialitateko hautagaien zerrendetan sartzeko eskakizun espezifikokoak.

Erljio-irakaskuntzak emateko, unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioei dagokien hezkuntza-mailan eskatzen zaizkien titulazio-baldintzak edo baliokideak bete beharko dira, maiatzaren 3ko Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen denari jarraituz; gainera, Erljio Aitortzako Agintaritzak proposatu behar ditu irakaskuntza hori emateko, eta Erljio Aitortzaren egokitasun-aitorpena edo ziurtagiri baliokidea lortu behar dute, hori guztia administrazio eskudunak kontratatu aurretik.

10. artikulua.– Espezialitatea emateko prestakuntza.

Agindu honen III. eranskinean jasotako titulazioen bidez egiaztatzen da espezialitate bakoitza emateko prestakuntza.

Bi kidesun-maila esleitu zaizkie titulazioei, eta horietako bakoitzak espezialitateak emateko lehentasun handiagoa edo txikiagoa du.

a) 1. kidesuna: konkordantetat jotako titulazioei ematen zaie, espezialitate baten edukiaren kideko direlako. Titulazio horiek dituzten hautagaiek ordezkapenak egiteko lehentasun handiagoa izango dute 2. kidesuna duten titulazioen jabe direnek baino.

b) 2. kidesuna: egokitze jotako titulazioei ematen zaie, espezialitate baten edukiaren hurbilekotzat hartzen direlako. 1. kidesuneko titulazioak dituzten hautagairik ez dagoenean soilik emango zaie aldi baterako lanpostuak estaltzeko aukera titulazio horiek dituztenei.

Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa edukitzea eskatzen duten irakaskuntza-mailetan, Agindu honen III. eranskinean jasotako espezialitateetako bati ere egokitzen ez zaion espezialitatearen bateko



Irakasleen Prestakuntzako master-tituluak berdin-berdin onartuko dira, baldin eta, Agindu honen ondorioetarako, jada aurreikusitako espezialitatearen baten baliokidetzat jo badaitezke; horretarako, nahitaezkoa izango da espezialitatearen batekin zerikusia duten 24 ECTS kreditu eginak izatea, gutxienez. Egoera horiek ematen direnean, loturako espezialitateari dagokion master tituluaren kidetasun-maila bera izango dute. Ez badira aurreikusitako espezialitatearen batekin lotutako 24 ECTS kreditu horiek egin, 2. kidetasun-maila esleituko zaie titulu horiei.

11. artikulua.– Baldintzak egiaztatzea.

Zerrendetan sartu nahi duten hautagaiek aurreko ataletan zerrendatutako baldintzak bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epean, eta zerrendan dauden artean eutsi beharko diete.

Ez dira kontuan hartuko hautatzen diren irakasgaiak edo espezialitateak emateko eskatutako titulazioen fotokopia konpultsatuen bidez egiaztatzen ez diren eskaerak.

Kasu bakoitzean eskatutako espezialitatea edo curriculum-lerroa adierazi beharko dute aurkeztutako titulazioek; bestela, titulua eman duen zentroaren ziurtagiri osagarria aurkeztu beharko da, egindako espezialitate edo curriculum-lerroa adierazita, edo, halakorik ezean, ziurtagiri akademiko pertsonala, egindako ikasgaiak adierazita. Irakasleen Prestakuntzako master tituluren bat aurkeztu, eta titulu horrek egiaztatzen duen espezialitatea ez baldin bada bat etortzen Agindu honen III. eranskinean aurreikusitako espezialitateetako batekin, ziurtagiri akademiko pertsonala aurkeztu beharko da master tituluarekin batera, hori izango baita bidea erabakitzeke loturarik ba ote duen jada aurreikusita dagoen espezialitatearen batekin, aurreko artikuluan adierazitakoaren arabera.

Euskarako titulazioa egiaztatzeke, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean jasota ez badago, horren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

Atzerriko tituluekin batera homologazio-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

III. KAPITULUA

PERTSONEK ZERRENDETAN IZANGO DUTEN ORDENA

12. artikulua.– Zerrendetako lehentasun-ordena.

Merezimenduetan eskuratutako puntuazioaren arabera, handienetik txikienera, ordenatuko dira pertsonak zerrendetan, agindu honen I. eranskinean jasotzen den baremoaren arabera, eta kidetasuna kontuan hartuta, zerrendak ohiz kanpoko moduan irekitzen ez badira behintzat; horrela bada, 17. artikuluan xedatutakoari jarraiki ordenatuko dira.

13. artikulua.– Merezimenduak.

1.– Agindu honen I. eranskinean aipatutako merezimenduak soilik hartuko dira kontuan, betiere, behar bezala hobetu, alegatu eta egiaztatu badira modu eta epe egokian.

2.– Merezimenduak egiaztatzeke, agindu honen I. eranskinean aipatutako dokumentazio zehatza aurkeztu beharko da.

3.– Puntuazioen guztirakoan berdinketarik sortzen bada, honako baremo-faktore hauek hartuko dira kontuan bata bestearen atzetik:

- Herri-ikastetxeetan zerbitzu-denbora gehiago (egunetan adierazita).
- Ikastetxe pribatuetan zerbitzu-denbora gehiago (egunetan adierazita).
- Ikasketa-espeditenteko batez besteko nota.



– Beste titulazio batzuk.

Berdinketak jarraitzen badu, izen-abizenen ordena alfabetikoa erabiliko da; zozketa bat egingo da urtero zer letratatik hasiko den zehazteko.

IV. KAPITULUA

ZERRENDETAN PARTE-HARTZEKO HAUTAPEN-PROZEDURAK

14. artikulua.– Zerrendak eratzeko eta zerrendak beste pertsona batzuetara zabaltzeko deialdi orokorrak.

1.– Langileriaren Kudeaketa Zuzendariak egingo du hautagaien zerrenden deialdia, karrerako funtzionarioekin edo langile finkoekin behar diren lanpostu guztiak ez direla beteko aurreikusten denean.

2.– www.hezkuntza.net web-orrian eta irakaslegunea ingurunean argitaratuko dira deialdiak. Prentsan ere argitaratuko da iragarki bat, eta sektoreko langileen sindikatuetakako ordezkarierei ere jakinaraziko zaie.

3.– Deialdiak aurreikusten badu zerrendan sartzeko ez dela hizkuntza-eskakizunaren edo prestakuntza pedagogikoaren eta didaktikoaren eskakizuna bete beharko, hala jakinaraziko du espresuki.

4.– Behin deitutako prozedura amaitutakoan, aurreikusten bada hurrengo deialdi arruntera bitarteko beharrak ez direla bete ahal izango amaitutako prozeduraren emaitzarekin, prozedura horri amaiera ematen dio ebazpenak xedatu ahal izango du zerrendak irekita mantenduko direla egoki irizten den denboraz. Horrela bada, sartzeko ordenaren arabera onartuko dira eskabideak.

15. artikulua.– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Pertsona eskatzaileak eskari bakar bat egingo du, deialdiak adierazitako moduan. Paperean edo formatu elektronikoan aurkezteko aukera eman ahal izango du deialdiak, edo formatu elektronikoak soilik aurkez daitekeela adierazi; azken egoera horretan, horretarako bitartekoak jarri beharko dira pertsona interesdunen eskura.

2.– Deialdiak adierazten badu nahi izanez gero eskaria paperean aurkez daitekeela, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritza batera igorri beharko da, ordezkaritza desberdinetako zerbitzuak barne hartzen baditu ere, eta eskabidearen hartzaile den ordezkaritzan aurkeztu ahal izango da, 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 38.4. artikuluan eta 72/2008 Dekretuan, 72/2008 Dekretuan, apirilaren 29koan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoan, aipatzen diren bulegoetan. Eskabidea Correosen bulegoan aurkeztuko bada, gutun-azal ireki batean aurkeztuko da ziurtatua izan aurretik bulegoak data eta zigilua jartzeko.

3.– Deialdiak ezartzen badu eskabidea derrigorrean formatu elektronikoan aurkeztu behar dela, pertsona interesdunei jakinaraziko die non aurki ditzaketen hori behar bezala betetzeko eta aurkezteko bitarteko materialak eta aholkularitza.

4.– Eskabidean adierazi beharko da ezarritako eskakizun guztiak betetzen direla, eta deialdiari jarraiki derrigorrean bete beharreko datu guztiak jasoko ditu; beste batzuen artean:

a) Norbera identifikatzeko datuak.

b) Sexua.

- c) Helbidea.
- d) Zer irakaskuntza eta espezialitate eman nahi diren.
- e) Eman beharreko hizkuntza-eskakizuna.
- f) Irakaskuntza hirueledun/HMHen aukera.
- g) Zer motatako lanaldian lan egin nahi den.
- h) Zer lurralde-eremutan lan egin nahi den (lurralde historikoa/k eta zonaldea/k).
- i) Zeinu-mintzaira, hala badagokio.
- j) Alegatutako merezimenduak, agindu honen I. eranskinean jasotako baremoan adierazitakoen artetik.

5.– Eskabidearekin batera aurkeztuko da deialdiak espresuki adierazitako eskakizun orokorrak eta espezifikoak betetzen direla egiaztatzeko dokumentuak, bai eta baremorako alegatutako merezimenduak egiaztatzekoak ere.

Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 6. artikuluan adierazitako moduan, deialdiak adierazi beharko du ez dagoela herri-administrazioen esku dauden datuak eta dokumentuak aurkeztu beharrik, ez eta dekretu horrek aipatzen duen datuak egiaztatzeko zerbitzuaren bidez kontsulta daitezkeen datuak eta dokumenturik ere.

Horretarako, deialdiak jakinarazi beharko die pertsona interesdunei zein diren egiaztatu beharrik ez dagoen datuak eta dokumentuak. Horien artean aurkitzen dira, adibidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko zentroetan izandako hezkuntza-esperientzia eta interesdunak euskara dakiela egiaztatzen duen agiria, hori sail horren esku badago.

16. artikulua.– Zerrendak onartzeko behin-behineko eta behin betiko ebazpena.

1.– Behin eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, deialdia egin duen organoak ebazpen bat emango du onartutako hautagaien zerrenda behin-behinean onartzeko, eta zer eskabide baztertu diren eta zergatik baztertu diren adieraziko du.

Behin-behinean onartuta dauden zerrendak adieraziko du baremoa aplikatuz zer puntuazio lortu duten guztira hautagaiak, eta zer puntuazio atal bakoitzean.

2.– www.hezkuntza.net web-orrian eta irakaslegunea ingurunean argitaratuko da ebazpen hori. Horren kontrako erreklamazioa aurkeztu ahal izango da akatsak edo ez-betetzeak konpontzeko, edo interesduna lortutako puntuazioarekin ados ez dagoelako, baina fase horretan inola ere ezin izango da eskabidean egindako aukerarik aldatu, ez eta merezimendu-alegazioa aldatu edo eskabidearekin batera aurkeztu behar zen dokumenturik aurkeztu ere.

3.– Deialdia egin duen organoak zerrendak behin betiko onartzen dituen ebazpenean ebatziko ditu erreklamazioak; ebazpen hori behin-behineko ebazpenarentzat adierazitako modu berean argitaratuko da.

Zerrendak behin betiko onartzen dituen ebazpenaren kontra, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabete bateko epean hura argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

17. artikulua.– Zerrenda ohiz kanpo irekitzea.

Ohiz kanpoko behar larria badago, irakasleen aldi baterako beharrei modu arin eta eraginkorrean erantzute aldera, Langilariaren Kudeaketa Zuzendariak zerrenda ohiz kanpoko moduan irekitzea erabaki dezake.



Zerrenda horrela ireki behar bada, dagokion moduan emango da horren berri www.hezkuntza.net web-orrian, irakaslegunea ingurunean eta prentsan, eta jarraian azaltzen diren baldintzak ezarriko:

– Pertsona interesdunek 15. artikuluan jasotako egiaztagiri guztiak aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera, gerora barematzeko.

– Irekitze-prozesu berezi honen bidez zerrendan sartzten diren izangaiak lanerako prest daudela ulertuko da.

– Zerrenda hau osatzen duten hautagaiak alfabetikoki ordenatuko dira, abizenen eta izenaren arabera. Urtero zozketa bat egiten da zer letratatik hasiko den zehazteko, eta Langileriaren Kudeaketa Zuzendariaren ebazpen bidez jakinarazten da hori. Ordena alfabetiko hori erabiliko da dagokion ikasturtean hautagaiak kudeatzeko prozesuan, bai eta ikasturtean zehar dei daitekeen beste edozein hautapen-prozesutan ere. Berdinketarik sortzen bada, nortasun-agiri nazionalaren zenbakia hartuko da kontuan, zenbaki txikienetik handienera, horiek ebazteko.

Zerrenda irekitzera doala jakinaraziko zaie sektoreko langileen ordezkari sindikalei.

18. artikulua.– LEPa gainditu duten pertsonentzat zerrendak irekitzea.

2012. urtean eta ondorengoetan deitutako hautapen-prozesuak gainditu dituzten pertsonak, ez badira prozesu horietan hautatuak izan, espezialitateko zerrenda baten sar daitezke, espezialitate horretako probak gainditu badituzte; betiere, lehenik espezialitateko zerrendan kidesasun berarekin ez bazeuden. Artikulu honetan aipatutako zerrendan sartzten direnek hautapen-prozesuan gainditu duten espezialitatean 1. kidesasuna izango dute.

Ondorio horietarako, behin dagokion sartzeko-prozeduratik datozen praktikaldiko funtzionarioen izendapen argitaratu denean, Langileriaren Kudeaketa Zuzendariak deialdi espezifiko bat egingo du pertsona horiek sartzeko aukera balia dezaten; praktikaldiko izendapena eskuratu dutenak ez badituzte karrerako funtzionario izendatzen praktikaldiko balioespen negatiboa ez den beste arrazoiren batengatik, horiek ere sartu ahal izango dira gerora.

www.hezkuntza.net web-orrian eta irakaslegunea ingurunean argitaratuko da deialdi hori.

15.5 artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe, pertsona horiek parte hartu duten hautapen-prozesuan eskatzen diren baldintza orokor eta espezifikoak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dituzte, eta aukeratu beharko dituzte horretarako ezarriko den epean: zonaldeak eta lurraldea, lanaldi-mota, eman nahi duten hizkuntza-eskakizuna eta hirueletasuna.

Aukera horretaz baliatzen direnek zerrenda ordenatu bat sortuko dute hautaketa-prozeduran lortutako amaierako puntuazioaren arabera.

Zerrendak indarrean sartzten den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta dagokion ikasturtea amaitu arte egongo da indarrean.

19. artikulua.– Prestakuntzari Laguntzeko eta Hezkuntza Berrikuntzako (Berritzegune) zentroak eta irakaskuntza-laguntzako beste zerbitzu batzuk.

Langileriaren Kudeaketa Zuzendariak deialdi espezifikoak egin ahal izango ditu Prestakuntzari Laguntzeko eta Hezkuntza Berrikuntzako (Berritzegune) zentroetako eta irakaskuntza-laguntzako beste zerbitzu batzuetako lanpostuak estaltzeko. Deialdian ezarriko da zer eskakizun bete behar diren postu bakoitza eskuratzeko, dagokion Lanpostuen Zerrendan xedatutakoari jarraiki.



Deialdi horietan parte hartzen duten hautagaiek, eskakizun guztiak betetzen badituzte eta ez bazaie aldi baterako lanpostu bat esleitu, deitutako postuetan aldi baterako beharrak asetzeko zerrenda espezifiko batean sartuko dira, deialdiak horretarako ezarriko dituen baldintzetan eta denboran zehar.

V. KAPITULUA

ZERRENDAK URTERO BIRBAREMATZEA ETA ALDATZEA

20. artikulua.– Birbarematzeko urteroko prozesua irekitzea.

Urtero, ikasturte bakoitza amaitu baino lehen, zerrendetako hautagaien merezimenduak birbarematuko dira ofizioz, agindu honetan xedatutako irizpideei jarraiki.

www.hezkuntza.net web-orrian, irakaslegunea ingurunean eta prentsan iragarriko da prozesu hori.

Epe bat jarriko da hautagai bakoitzaren birbarematzeko emaitzei buruzko informazioa eskuratzeko eta erreklamazioak aurkezteko. Epe horretan, zerrenda orokorreko pertsonak aukerak aldatu ahal izango dituzte, merezimendu berriak alegatu eta lehen aurkeztu gabeko dokumentu berriak aurkeztu. Zerrenda berezietako pertsonak (zerrenda orokorrean sartuta ez daudenak) ere beste merezimendu batzuk alegatu eta aurkeztu ahal izango dituzte, baina ordezkapen aukerei dagokienez, mantendu egingo dituzte euren zerrenda bereziak irekitzean hautatu zituzten aukerak.

21. artikulua.– Aldaketak eta eskabideak aurkezteko modua.

Urteko birbarematzio-prozesuetan egin beharreko aukera-aldaketak eta eskabideak horretarako ezarritako epean egingo dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtero horretarako gaituko duen aplikazio informatikoaren bidez.

Sail honek baliabide telematikoen erabilera gaitu ahal izango du modu eksklusiboan, eta kasu horretan nahikoa eta beharrezko baliabide material eta giza baliabide jarriko ditu hautagaien esku. Prozedura horiek ondo gauzatzeko, hautagaiek aplikazio informatikoetan sartu beharko dute, hautagaiaren erabiltzailea eta pasahitza erabiliz. Pasahitzik ez badute, berri bat eskuratu ahal izango dute www.irakasle.net-en, «pasahitza berreskuratu» aukeraren bidez.

Dokumentazio berria Hezkuntzako lurralde-ordezkaritza batera soilik zuzendutako eskabide baten bidez aurkeztuko da, prozesuaren iragarkian ezarritako epearen barruan, eta eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak eta baremorako alegatutako merezimenduen ziurtagiriak ere aurkeztuko dira horrekin batera.

22. artikulua.– Zerrenda berriak argitaratzea.

1.– Behin aldaketak eta eskabide berriak aurkezteko epea amaitutakoan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hautagaien zerrenda berriak argitaratuko ditu behin-behinean, agindu honetan ezarritako irizpideen arabera antolatuta. Zerrenda orokorra eta zerrenda bereziak, horrelakorik egonez gero, argitaratuko dira www.hezkuntza.net web-orrian eta irakaslegunea ingurunean.

2.– Halaber, beste zerrenda berezi bat ere argitaratuko da, behin betiko zerrendetatik kanporatu dituzten hautagaiena.



3.– Erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira zerrenda horien kontra, horretarako ezarriko den epean.

4.– Behin erreklamazioak ebatzitakoan, Langileriaren Kudeaketa Zuzendariak ebazpen bat emango du birbarematze prozesuaren ondoren geratzen diren zerrendak behin betiko onartzeko. Behin-behineko ebazpena bezala argitaratuko da.

5.– Zerrendak behin betiko onartzen dituen ebazpenaren kontra, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabete bateko epean hura argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

23. artikulua.– Hizkuntza-eskakizuna birbarematze-prozesuaren ostean egiaztatzea.

Zerrenda orokorreko pertsonak, birbarematze-prozesua amaitu ondoren, ikasturte hasierako esleipen prozesua hasi arte izango dute aukera hizkuntza-eskakizunaren egiaztapena eguneratzeko, 2011ko uztailaren 15eko Aginduak, prozesu hori arautzen duenak, xedatutakoaren arabera.

24. artikulua.– Pertsonak zerrenda orokorrean sartzea.

1.– Urteroko birbarematze-prozesuan, hautapen-prozesuen ondorioz zerrenda berezian dauden pertsonak zerrenda orokorrean sartuko dira. Zein espezialitatean gaintitu zituzten probak, espezialitate horretan 1. kidesuna dutela ulertuko da.

Era berean, zerrenda berezietan zeuden eta zerrenda orokorrean sartzeko eskakizun guztiak betetzen dituzten pertsonak ere zerrenda orokorrean sartuko dira.

Azkenik, zerrenda berezietan zeuden eta hizkuntza-eskakizunik egiaztatzen ez duten izangaiak zerrenda orokorrean sartuko dira, baldin eta zerbitzuak eman badituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan, zerrenda bereziari dagokion espezialitatean, eta, espezialitateak hala eskatzen duen kasuetan, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa dutela egiaztatu badute.

Zerrenda orokorrean sartutako pertsonak haien merezimenduak barematzean eskuratutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira.

2.– Zerrenda berezietan dauden eta zerrenda orokorrean sartzen ez diren pertsonak dagokion zerrenda berezian egoten jarraituko dute, eta haien merezimenduen barematzean eskuratutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira.

25. artikulua.– Zerrenda garbitzea.

(kendutako artikulua)

26. artikulua.– Erljioko zerrendak birbarematzea.

Erljio-zerrendan egoten jarraitu nahi duten hautagaiek dagokien eliza-arduradunaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute urteko birbarematze-prozesuan; eskola emateko proposatu behar ditu horrek, eta horretarako prestatuta daudela eta egokiak direla ziurtatu.

Zerrendan erljio-espezialitatean sartu diren hautagaiek espezialitate horretan jarraituko dute soilik, agindu honetan ezarritako sartzeko sistemen bidez beste espezialitate batean jarduteko gaitzen diren arte.



VI. KAPITULUA ZERRENDETAKO EGOERAK

27. artikulua.– Zerrendetako egoerak.

Agindu honetan araututako hautagaien zerrendetan dauden pertsonak honako egoera hauetako batean egongo dira: lanean, lanerako prest edo aldi baterako bajaran.

28. artikulua.– Lanean. «Lanean» egoeran daude hautagaien zerrendan dauden eta agindu honen aplikazio-eremuan zerbitzu ematen ari diren hautagaiak.

Pertsona bat lanean badago, egoera hori aplikatuko zaio dagoen zerrenda guztietan, eta, beraz, ez diote lan-eskaintzarik igorriko horietatik, 19. artikuluan aurreikusitako egoera gertatzen ez bada behintzat.

29. artikulua.– Lanerako prest.

«Lanerako prest» egoeran daude, eta, beraz, lan-eskaintzak jaso ahal izango dituzte, hautagaien zerrendan dauden eta agindu honen aplikazio-eremuan zerbitzu ematen ez dauden hautagaiak, aldi baterako baja-egoeran ez daudenak.

30. artikulua.– Aldi baterako bajaran.

1.– «Aldi baterako baja» egoerara pasako dira honako egoera hauetako batean daudela egiaztatzen duten pertsonak:

- a) Gaixotasun arruntetik edo lanekoa ez den istriputik datorren aldi baterako ezintasuna.
- b) Lan-istriputik eta lanbide-gaixotasunetik datorren aldi baterako ezintasuna.
- c) Haurdunaldian arriskuan izatea edo arriskuko haurdunaldia izatea; behar den moduan egiaztatu beharko da.
- d) Amatasuna, adopzioa eta harrera: ama bada, haurdunaldiko zazpigarren hilaren eta erditu ondorengo hemezortzigarren astearen artean. Aldi hori hogeigarren astera artekoa izan daiteke, semeak edo alabak ezgaitasunik izanez gero, eta erditze multipleetan seme edo alaba bakoitzarengatik, bigarrenetik aurrera.

Aurrekoa horrela izanik ere, erditu ondoren amarentzat nahitaezko atsedenerako diren hurrengo asteak kenduta, bi gurasoak lanean ari badira, bikotekidea aldi baterako bajako egoerara pasa daiteke amak hari dagokionetik lagatako aldian. Baja-aldiak une berean izanez gero, horien baturak ezingo ditu gainditu aurreikusitako hemezortzi asteak edo erditze multipleari dagozkionak.

Jaioberria jaiotze denetik gehienez 30 eguneko epean ospitaleratu egiten badute, gehitutako aldian amatasunagatiko aldi baterako baja onartuko da, haurra ospitaleratuta dagoen artean, 13 astez gehienez.

Ama hilez gero, aita aldi baterako bajara pasa ahal izango da lehen esandako aldian edo horretatik geratzen den aldian zehar.

Adingabeen adopzioetan edo familia-harreretan, bai adopzio aurreko egoeran bai iraunkorrean, emakume hautagaia aldi baterako bajako egoerara pasa daiteke hemezortzi aste jarraitutarako; adingabea ezgaitua bada beste bi astez luza daiteke, eta beste bi aste gehiago seme edo alabako, adopzio edo harrera multiplea bada.

Aldi hori, interesdunak hautatuta, harreraren erabaki administratibo edo judizialek aurrera zein adopzioa eratzen duen ebazpen judizialek aurrera zenbatuko da. Aitak eta amak lan egiten badute, bi interesdunek aukeratu bezala banatuko da baimena, eta aldi berean edo segidan har dezakete, beti aldi jarraituetan.



Haurra atzerrian adoptatuz gero, gurasoek adoptatu nahi duten haurraren jaioterrira joan behar badute aurrez, adopzioa eratzen duen ebazpena eman baino lau aste lehenago ere hasi ahal izango da aldi baterako baja.

e) Aitatasuna: seme edo alaba bat jaio, adoptatu edo hartu, harrerako erabaki administratibo edo judiziala hartu edo adopzioa eratzen duen ebazpen judiziala eman ondorengo 4 asteetan. Arrazoi horrek eragindakoa aldi baterako bajako aldia aldatu nahi bada gerora, horretarako ezartzen diren legezko xedapen orokorrak bete beharko dira.

f) Odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko 2. mailara arteko ahaideen gaixotasun larria edo heriotza: aldi baterako baja 3 lanegunekoa izango da gehienez 2. mailara arteko senide bat hilez gero, edo, elkarrekin bizi baziren, baita urrutiagoko mailakoa, eta 5 lanegunekoa ezkontideak, mutil-lagunak, neska-lagunak, semeak edo alabak gaixotasun larri justifikatua badu edo hil egin bada. Odol-edo ezkontza-ahaidetasuneko 2. mailara arteko ahaideen gaixotasun larri justifikatuagatik, edo, elkarrekin bizi badira, baita urrutiagoko mailara arteko ahaideen gaixotasunagatik ere, 2 lanegun gehienez.

Aipatutako epeak beste bi egun naturaletan luzatuko dira, gaixotasun larria edo heriotza langilearen ohiko helbidetik 150 kilometro baino gehiagora gertatzen bada.

Edonola ere, gaixotasunaren larritasuna ziurtagiri medikuaren bidez egiaztatu beharko da.

g) Norbera ezkontzea edo izatezko bikotea eratzea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, izatezko bikoteak arautzen dituenak, jasotako baldintzetan; horretarako, EAEko Izatezko Bikoteen erroldak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, baldin eta ezkondu edo erregistroan inskribatu aurreko edo ondorengo hogeitun egun naturaletan gertatzen bada aldi baterako baja.

h) Askatasuna kentzea, kondena-epaia ematen ez den arte.

i) Hezkuntza Sailak, IVAPek edo MEk edo beste autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioek antolatutako ikastaroetan parte hartzea.

j) Ikasketa-beka baten edo hezkuntza-sistemarekin zuzenean lotutako beka baten onuradun izatea.

k) Ikasketa ofizialetan eta/edo praktiketan aritzea. Ikasketa ofizialak badira, ikasturte osoan zehar aplikatu daitezke aldi baterako baja eta matrikularen bidez egiaztatu beharko da. Praktikak badira, praktikek dirauten bitartean aplikatuko da aldi baterako bajako egoera, eta ziurtagirian zehaztu beharko da horien iraupena.

l) Edozein motatako lan-kontratua izatea, herri-administrazio batek izendatu izatea edo Gizarte Segurantzaren autonomo gisa altan egotea. Halakoetan, merezimenduen baremoaren 3. artikuluan eskatzen diren egiaztapenak aurkeztu beharko dira.

m) Atzerrian GKE bati zerbitzu ematen egotea.

n) Karrera funtzionarioei zerbitzu bereziak aitortzea dakarren egoeraren batean egotea.

ñ) Genero-indarkeriaren, terrorismoaren, jazarpenaren edo beste indarkeria-mota baten biktimia izatea; egiaztatu egin beharko da.

o) Ahalmeneko protokoloa behin-behineko kalifikazioarekin ebaztea.

2.– Aldi baterako bajako egoeran egoteko, hori eragin duen arrazoia egiaztatu behar da hamar eguneko epean, eta ezingo da egoera bakoitzerako ezarritako aldia gainditu.

3.– Aldi baterako baja eragin duen arrazoia amaitzen bada, edo, borondatezko egoera bat bada, amaitu baino lehen, hautagaiak egiaztatzeko moduan jakinarazi beharko dio dagokien lurralde-ordetzaritzetako bati (zer zerrendetan dagoen, horiei dagozkien lurralde-eremuetakoei), aldi baterako baja eragin zuen arrazoia amaitu dela, eta behar den bezala egiaztatu beharko du, edo



haren borondatez «lanerako prest» egoerara pasatzea eska dezake bestela. Egoera amaitzen denetik hamar eguneko epean ez badu hori jakinarazten, zerrendetatik kanporatuko da.

Aldi baterako bajako arrazoia amaitutakoan, hautagaia «lanerako prest» egoerara pasako da, beste egoeraren batean geratzea ez badagokio behintzat.

4.– Aldi baterako bajako egoeran duden pertsonak ez dute lan-eskaintzarik jasoko aldi horretan zehar, 37. artikuluan aurreikusitako egoeretan salbu.

5.– Hautagai bat aldi baterako bajan badago, egoera hori aplikatuko da dagoen zerrenda guztietan.

31. artikulua.– Jarduera-eten iragankorreko egoera.

Jarduera-eten iragankorreko egoerara pasako dira seme-alabak zaintzeko hori eskatzen duten pertsonak, horiek hiru urte bete arte gehienez.

Behin bakarrik eska daiteke. Ezin izango da aldi horretan ordaindutako beste edozein jarduera gauzatu edo langabeziagatik edonolako prestaziorik edo laguntzarik jaso.

Hori eskatzen duen pertsonak hautagaien zerrendan egoten jarraituko du, eta haren erreferentziazko lanpostura edo «lanerako prest» egoerara itzuli beharko du nahitaez haren semeak edo alabak hiru urte betetakoan; lehenago ere itzuli ahal izango da.

VII. KAPITULUA

LANPOSTUAK BETETZEKO DEITZEA

32. artikulua.– Prozedura orokorra.

1.– Lurralde-ordezkaritza bati jakinarazten badiote lanpostu bat aldi baterako estaltzeko beharra dagoela, une horretan honako baldintza guztiak betetzen dituen pertsonari eskainiko zaio hori:

a) Lanpostuari dagokion mailako eta espezialitateko eta zonaldeko/lurraldeko zerrenda batean egotea.

b) Lana gauzatzeko behar diren aukerak hautatuta agertzea zerrendan.

c) «Lanerako prest» egoeran egotea, edo 37. artikuluan jasotako egoera espezifikoetako batean.

d) Posizio hoberenean egotea agindu honek zerrenda orokorra eta zerrenda bereziak eta horietako pertsonak ordenatzeko ezartzen dituen irizpideei jarraiki.

2.– Irakasleen ohiko lanaldi osoaren heren bat baino irakastordu gutxiago dituzten lanpostuak ikastetxeak osatuko ditu muga horretaraino, eta horixe joko da eskain daitekeen minimotzat.

3.– Nahitaezkotasun-data iraungita duten 2. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak hori egiaztatuta duten eta eman nahi den hizkuntza-eskakizunean hori hautatuta duten pertsonari eskainiko zaizkie.

Nahitaezkotasun-data iraungita duten 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak hori egiaztatuta duten eta eman nahi den hizkuntza-eskakizunean hori hautatuta duten pertsonari eskainiko zaizkie.

Nahitaezkotasun-data geroratuta duten lanpostuak «HE2 bakarrik» aukera erabili ez duten zerrendako pertsona guztiei eskainiko zaizkie.

4.– Jende gehiago sartzeko zerrenda-irekiera batean zerrenda bereizi batera sartu arren euskara ezagutzeko baldintza egiaztatzen ez duten pertsonari nahitaezkotasun-data atzeratuko hizkuntz eskakizuneko lanpostuetan aldi baterako premiak lehen aldiz betetzeko deitu ahal izango zaie baldin eta baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaileak ez badaude.

5.– Jende gehiago sartzeko zerrenda-irekiera batean zerrenda bereizi batera sartu



arren prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza betetzen ez duten pertsoneri aldi baterako premiak lehen aldiz betetzeko deitu ahal izango zaie baldin eta prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza betetzen duten eskatzaileak ez badaude.

6.– Hizkuntza-eskakizunaren nahitaezkotasun-data atzeratua eta prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza duten lanpostuak betetzeko orduan, lanpostuak betetzeko exijitutako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonak ez izateagatik hizkuntz eskakizunaren edo prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza betetzen ez duten zerrenda bereizietako pertsonengana jo behar izanez gero, eskatutako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duten pertsonak izango dute lehentasuna.

7.– Zonalde jakin bateko beharra ezin bada bete zerrendan dauden pertsonekin, lurraldean lanerako prest dauden pertsonen zerrendara joko da, eta 5. artikuluan ezarritako zerrenden lehentasuna kontuan hartuko da.

33. artikulua.– Zerrendako espezialitatea kontuan hartzea lanpostu jakin batzuetara deitzeko.

1.– «Natura-zientzietako» lanpostuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak, Bigarren Hezkuntzako «Fisika eta Kimika» eta «Biologia eta Geologia» espezialitateetako zerrendetako pertsoneri ere eskainiko zaizkie berdin-berdin, agindu honetan araututako baremoak ezarritako ordenaren arabera.

2.– «Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia» espezialitateko lanpostuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak, Bigarren Hezkuntzako «Geografia eta Historia» espezialitateko zerrendetako pertsonekin beteko dira.

3.– «Hezkuntza Plastikoa eta Bisuala» espezialitateko lanpostuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak, Bigarren Hezkuntzako «Marrasketa» espezialitateko zerrendetako pertsonekin beteko dira.

4.– Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko espezialitateetako lanpostuak, Zereginen Ikaskuntza Geletakoak, Lanbide Heziketako mailako zerrendetako pertsonak beteko dituzte, postuaren profilari dagokion espezialitatekoek. Hautagaiak erabakiko du postua hartu nahi duen edo ez.

5.– «Pedagogia Terapeutikoa» eta «Entzumena eta Hizkuntza» espezialitateko lanpostuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak edo Helduen Hezkuntzakoak, bai eta Zereginen Ikaskuntza Geletakoak ere, Haur eta Lehen Hezkuntzako zerrendetan espezialitate horretan izena emanda dauden pertsonekin beteko dira.

6.– Helduen Hezkuntzako Maisu Maistren Kidegoko lanpostuak Haur eta Lehen Hezkuntzako zerrendetan dauden pertsonekin beteko dira honela: «Ingelesko» postuak «Ingelesa» espezialitatekoek; «Frantseseko» postuak «Frantsesa espezialitatekoek»; «Matematikako», «Gizarte Zientzietako» eta «Hasierako Irakaskuntzetako» postuak »Lehen Hezkuntza» espezialitatekoek.

7.– Hirugarren Xedapen Gehigarrian aipatzen den zerrenda sortu arte, «Hizkuntza Laguntzako Irakasleak» espezialitateko lanpostuak, Bigarren Hezkuntzakoak, berdin-berdin eskainiko zaizkie Bigarren Hezkuntzan honako espezialitate hauetako zerrendetan dauden pertsoneri: «Gaztelania eta Literatura», «Euskara eta Euskal Literatura», «Geografia eta Historia», «Latina», «Grekoa», «Ingelesa», «Frantsesa», «Alemana» eta «Filosofia». Agindu honetan araututako baremoaren arabera ordenatuko dira. Zerrenda sortu arte bakoitzak erabakiko du postu hori bete nahi duen edo ez.

8.– Hirugarren Xedapen Gehigarrian aipatzen den zerrenda sortu arte, «Hizkuntza Laguntzako Irakasleak» espezialitateko lanpostuak, Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, 2. hizkuntza-eskakizuna (2HE) edo baliokidea egiaztatu duten «Lehen Hezkuntza» espezialitatekoek eskainiko zaizkie. Zerrenda sortu arte bakoitzak erabakiko du postu hori bete nahi duen edo ez.



9.– Hirugarren Xedapen Gehigarrian aipatzen den zerrenda sortu arte, «Kultura Klasikoko» lanpostuak Bigarren Hezkuntzako «Latina» eta «Grekoa» espezialitateetako zerrendetako pertsoneri ere eskainiko zaizkie berdin-berdin, agindu honetan araututako baremoak ezarritako ordenaren arabera. Zerrenda sortu arte bakoitzak erabakiko du postu hori bete nahi duen edo ez.

34. artikulua.– Prestakuntzari Laguntzeko eta Hezkuntza Berrikuntzako (Berritzegune) zentroetan eta irakaskuntza-laguntzako beste zerbitzu batzuetan aldi baterako beharrak estaltzeko deitzea.

Prestakuntzari Laguntzeko eta Hezkuntza Berrikuntzako (Berritzegune) zentroetako eta irakaskuntza-laguntzako beste zerbitzu batzuetako aldi baterako lanpostuak horiek betetzeko eskakizunak betetzen dituzten pertsoneri eskainiko zaizkie, honako ordena honi jarraiki:

Lehenbizi, dagokion postuan aldi baterako beharra asetzeko zerrenda espezifikoan daudenei, 19 artikulua arabera eraturakoari. Pertsona horiek beste irakaskuntza-postu batzuetan lanean badaude, daukaten izendapenari uko egin ahal izango diote dagokion zerrendatik atera gabe.

Jarraian, lehenago antzeko posturen batean lan egin dutenei, dagokion zerrendan duten ordenaren arabera. Langile horiek deitzeko, lurraldeko aukerak besterik ez dira kontuan izango. Bakoitzak erabakiko du esleipena nahi duen edo ez.

Azkenik, zerrenda orokorretako hautagaiei, dagokien zerrendan duten hurrenkeraren arabera. Langile horiek deitzeko, lurraldeko aukerak besterik ez dira kontuan izango. Bakoitzak erabakiko du esleipena nahi duen edo ez.

35. artikulua.– Zailtasun edo interes bereziko postutzat jotako postuetarako deitzea.

Zailtasun edo interes bereziko postutzat jotakoak aldi baterako horiek estaltzeko eskakizunak betetzen dituzten pertsoneri eskainiko zaizkie, egoera bakoitzari dagokion espezialitateko zerrendetakoak barne. Bakoitzak erabakiko du esleipena nahi duen edo ez.

36. artikulua.– Funtzionamendu orokorraren salbuespenak.

1.– Pertsona batek ordezkapen bat egin badu, eta 10 irakastegun iragan baino lehen irakasle bera ordezkatu beharra sortzen bada eta ikastetxeak horrela jakinarazten badio dagokion lurralde-ordezkaritzari, arestiko ordezkapena egiten aritu zen hautagaiak egingo du ordezkapen hori, egiteko moduan badago.

2.– Pertsona bat lanaldi osoko ordezkapen bat egiten ari bada, eta postuaren titularra lanaldi murriztuarekin itzultzen bada lanera, ordezkapena egiten ari zen pertsonak jarraitu beharko du ordezkapena egiten lanaldi murriztuko aukera hautatu bazuen; bestela, berak erabakiko du lanaldi murriztuarekin jarraitu nahi duen edo ez.

3.– Pertsona bat lanaldi murriztuko postu bat estaltzen ari bada, eta hori lanaldi osoko postu bihurtzen bada edozein arrazoi dela eta, lanaldi partzialean izendatuta zegoen pertsonak jarraituko du lanaldi osoko postuarekin, lanaldi osorako puntuazio hobea duten pertsonak badaude ere, lanaldi osoko aukera hautatu bazuen; bestela, berak erabakiko du postuarekin jarraitu edo ez.

4.– Hautagai bat lanaldi murriztuko ordezkapena egiten ari bada, eta ikastetxe berean lanaldi murriztuko beste ordezkapen bat egiteko premia sortzen bada eta ikastetxeak dagokion lurralde-ordezkaritzari horrela jakinarazi badio, hautagai horrek lehentasuna izango du ordezkapen hori egiteko, puntuazio handiagoa duten hautagairik badago ere, zerrendan 1. kidesunarekin baldin badago, eta ordutegi-bateragarritasuna badu.

37. artikulua.– Aldi baterako bajako edo jardunaldi-eten iragankorreko egoera jakin batzuetan deitzea.

1.– Lan-istripuagatik edo lanbide-gaixotasunagatik aldi baterako ezintasuneko egoeran dauden hautagaiei, eta amatasun- edo aitatasun-egoeran daudenei, haurdunaldian arriskua dutenei eta arriskuko haurdunaldia dutenei, edo adopzioagatik edo harreragatik aldi baterako bajako egoeran



daudenei, behar bezala justifikatuz gero, egoera horretan egongo ez balira bezala deituko zaie, eta eskainiko zaien ordezkapenaren iraunaldia emandako zerbitzaldizat zenbatuko zaie, baina zerrendak birbarematzeari eta udako ordainketak jasotzeko zenbaketa egiteari dagokionez bakarrik. Baremorako kontuan hartutako zerbitzaldi horrek ez du eraginik izango «antzinatasuna» izeneko ordainsari osagarrian, ez eta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako ere, ez delako benetako zerbitzurik eman.

Ikasturte-hasierako esleipenean ere lanpostua hauta dezakete, eta ordezkapen-aldia zerbitzualdizat zenbatuko zaie, baina zerrendak birbarematzeko soilik.

2.– Semeak edo alabak 3 urte bete arte zaintzeagatik jarduera-eten iragankorra eskatu duten hautagaiei, edo karrerako funtzionarioei zerbitzu bereziak aitortzea dakarren egoeraren batean daudenei, egoera horretan egongo ez balira bezala deituko zaie, eta eskainiko zaien ordezkapenaren iraunaldia emandako zerbitzuko aldizat zenbatuko zaie, baina zerrendak birbarematzeari dagokionez bakarrik. Baremorako kontuan hartutako zerbitzu-aldi horrek ez du eraginik izango «antzinatasuna» izeneko ordainsari osagarrian, ez eta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako ere, ez delako benetako zerbitzurik eman.

Ikasturte-hasierako esleipenean ere lanpostua hauta dezakete, eta ordezkapen-aldia zerbitzualdizat zenbatuko zaie, baina zerrendak birbarematzeko soilik.

3.– Ikasturte-hasierako esleipenean hautatutako lanpostua ikasturte osorako bada, artikulua honen 1. eta 2. ataletan jasotako egoeretan dauden hautagaiak esleitutako lanpostuan has daitezke egoera hori eragin duen gertaera amaitutakoan.

38. artikulua.– Zerrenden funtzionamendu informatikoa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, aurrez alde sindikalarekin negoziatuta, zerrenden funtzionamendu orokorraren alderdi jakin batzuk alda ditzake, kudeaketa hori gerora bitarteko informatikoeekin egin ahal izate aldera.

Prozedura informatiko horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak borondatez eskatu dutenen artean eskubide gehien duen hautagaiari eskainiko dizkio lanpostuak, baldintza guztiak betetzen baditu eta lanerako prest badago.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskaini dituen lanpostu guztiak betetzen ez badira, administrazioak ofizioz esleituko ditu bete beharreko postuak baldintzak betetzen dituzten eta lanerako prest dauden langileen artean, dagokien zerrendan duten posizio erlatiboaren kontrako hurrenkeran.

Eskaintako lanpostu hutsak esleitutakoan, egindako esleipenak argitaratuko ditu sailak eta izendapena egiaztatzen duen jakinarazpen telematikoa igorriko die hautagaiari eta dagokien ikastetxeari.

VIII. KAPITULUA

UKO EGITEA, IZEDATZEA EDO KONTRATATZEA ETA POSTUA UZTEA

39. artikulua.– Zerbitzu emateko betebeharra.

Agindu honen esparruan lanpostu bat estaltzeko aukera eskaini bazaio pertsona bati, izendapena edo kontratazioa onartu eta zerbitzu emateko betebeharra du horrek; salbuespen gisa, hurrengo artikuluan jasotzen dira modu arrazoituan uko egitea eragin dezaketen egoerak.

40. artikulua.– Uko egitea.

1.– Egindako eskaintzari uko egiteko arrazoi gisa onartuko dira honako hauek, betiere, eskaintza egiten den unean espresuki jakinarazten badira:

a) Zerrendetan aldi baterako bajan egoteko kontuan hartutako egoeretako batean egotea. Hori alegatzen duen pertsona aldi baterako bajako egoerara pasako da zerrenda guztietan behar den denboraz, betiere, uko egin eta hamar eguneko epean egoera hori eragin duen arrazoia egiaztatzen badu; bestela, zerrendetatik kanporatuko dute.

b) Borondatezko esleipeneko postu gisa sailkatutako lanpostu bat izatea.

2.– Honako arrazoi hauek ere onartuko dira:

a) Hautagaiak uko egitea, ezaugarri jakin batzuk dituzten postuak betetzeko gai ez dela uste duelako, agindu honetan ezarritako protokoloari jarraiki. Behin postua esleitutakoan, 15 egun naturaleko epean uko egin ahal izango zaio, eta, hortik aurrera, pertsona horri ez diote berriz deituko antzeko ezaugarriak dituzten postuetarako.

b) Hautagaiak uko egitea, eskaini zaion lanpostuaren zereginak betetzea eragozten dion minusbalotasun fisikoren bat duelako. Behar bezala egiaztatu beharko da egoera hori.

3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2011ko uztailaren 15ean emandako aginduan adierazten diren epe eta baldintzak bete beharko dira ikasturte-hasierako esleipen-prozeduran uko egiteko arrazoiak alegatzeko; izan ere, agindu horren bidez arautzen da ikasturte-hasierako esleipen-prozesua, irakasleen kidegoetan sartzeko edo kidego horietara heltzeko prozesuetako praktikaldia egin behar duten lagunei eta irakasleen ordezkari izateko hautagaien zerrendako kideei dagokienez.

41. artikulua.– Izendatzea eta kontratatzea.

1. – Behin eskaintza onartutakoan, pertsona hori izendatu edo kontratatuko da, dagokion ondorio-datarekin, eta izendatutako pertsona «lanean» egoerara pasako da ondorio guztietarako. 37. artikuluan araututako egoeretan, eskaintza onartzeak artikuluan ezartzen diren ondorio guztiak ekarriko ditu.

2.– Irakasle-lanpostuak betetzeko izendapenak horiek egin diren ikasturtea amaitu artekoak izango dira gehienez, egun horren aurretik izendapena eragin zuen arrazoia desagertzen ez bada eta, nolana ere, hori sortu zuten premiazko edo beharrezko arrazoiak desagertzen ez badira.

3.– Prestakuntzari Laguntzeko eta Hezkuntza Berrikuntzako (Berritzegune) zentroetako eta irakaskuntza-laguntzako beste zerbitzu batzuetako lanpostuak badira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hurrengo ikasturterako ere luza dezake hautagaiaren izendapena, betiere, hala adierazi bazuen postu horiek aldi baterako estaltzeko deialdi espezifikoak.

4.– Erlijio irakasleen aldi baterako ordezkapenentarako lan-kontratuak horien titularra itzuli arte luzatuko dira. Gainerako egoeretan, dagokion ikasturtea amaitu bitartekoak izango dira gehienez, edo, hala badagokio, ezartzen den prozeduraren bidez arauz estaltzen diren arte. Hori guztia indarrean den lan-araudian kontratua amaitzeko arrazoi gisa ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

5.– Izendatutako edo kontratatutako pertsonak bete duten postuari eta lanaldiari dagozkien ordainsariak jasoko dituzte.

42. artikulua.– Zerbitzu emateari uztea.

1.– Zerbitzu emateari utziz gero, hautagaia «lanerako prest» egoeran jarriko da berehala dagoen zerrenda guztietan, eta izendatu edo kontratatu zutenean zuen puntuazio bera izango du, urteko birbarematze-prozesu bat egin ez bada behintzat; egin bada, zerrendak aztertu eta prozesu horretan ateratako emaitzak aplikatuko dira.

2.– Hautagaiak ordezkapena amaitutakoan, dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzari jakinarazi beharko dio. Idatziz jakinarazi beharko dio derrigorrean, beste bide batzuetatik ere jakinarazten badio ere.



IX. KAPITULUA

IRAUNGITZEA ETA ZERRENDETATIK KANPORATZEA

43. artikulua.– Hautagaien zerrendak iraungitzea.

1.– Hautagaien zerrendak hautagairik ez dagoelako iraungiko dira, edo arau bat aplikatzeak dakartzan ondorioengatik.

2.– Agindu honetan adierazten den eran, zerrendak iraungitzen badira, Langileriaren Kudeaketa Zuzendariak espresuki aitortu beharko du hori ebazpen baten bidez, eta www.hezkuntza.net web-orrian eta irakaslegunea ingurunean argitaratuko da ebazpen hori.

44. artikulua.– Hautagaiak zerrendetatik kanporatzeko arrazoiak eta horrek dituen ondorioak.

1.– Zerrendatik kanporatzeko arrazoi izango dira honako hauek:

a) Hautagaiak zerrenda batean egoteari uko egitea haren borondatez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartzen duen unetik.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle-kidego batean karrerako funtzionario izendatua izatea, kidego horri dagozkion espezialitateetarako; beste kidego batzuetako zerrendetan jarrai dezake halere.

c) Nahitaezko erretiroko adinera iritsi izatea. Arrazoi hori ez da aplikatuko hautagaiak adin hori betetzen duen ikasturterako birbarematze-prozesuan aktibo egotea eskatu badu eta, gainera, adin hori betetzen duen egunetik aurrera izendapen jarraituak baditu. 70 urte betetzen dituen hautagaiak inola ere ezin izango du aktibo egoten jarraitu.

d) Agindu honetan xedatutakoari jarraiki zerbitzu emateko deitu badiote hautagai bati, eskaintzari uko egin izatea, 40. artikuluari jarraiki uko egiteko onartzen diren egoeretako batean ez badago behintzat.

e) Uko egiteko arrazoiak ez alegatzea eta egiaztatzea agindu honetan ezarritako epe eta baldintzetan, edo, hala badagokio, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren uztailaren 15eko aginduan, ikasturte-hasierako esleipen-prozesua arautzen duenean, aurreikusitako epe eta baldintzetan.

f) Esleitutako lanpostuaz ez jabetzea, zerbitzuak emateari uztea edo borondatez uko egitea izendapenari edo kontratuari, Agindu honetako 34. artikuluan xedatutakoa salbu. Idatziz formalizatu beharko du borondatezko uko egitea interesdunak.

g) Zerbitzutik bereizia izateko zehapen irmoa jaso izana diziiplina-espeditente baten ondorioz, edo diziplinazko kaleratzea hartu izana.

h) Eginkizun-gabetzearen zehapen irmoa jaso izana diziiplina-espeditente baten ondorioz, 2. paragrafoan ezarritako baldintzekin eta ondorioekin.

i) Eginkizun arruntak gauzatzeko gaitasun-falta nabaria izatea, 45. artikuluan ezarritako protokoloaren ebazpenean behin betikotzat jotakoa.

2.– Kanporatuak zerrendetan sartu ahal izango dira berriz. Horretarako bidea izango da agindu honetan zerrendak irekitzeko aurreikusten diren prozeduretako batean parte hartzea, zerrendan



parte hartzeko eskakizunak betetzen badituzte eta aurreko ataleko g) eta i) idatzi-zatian azaldutako egoeretan ez badaude.

Hala eta guztiz ere, d), e) eta f) letretan aipatutako arrazoiak direla eta zerrendetatik kanporatu dituzten pertsonen, zer ikasturtetan kanporatu dituzten, ezin izango dute parte hartu ez ikasturte horretan ez hurrengoan deitutako zerrenda-irekitzeetan.

Diziplina-espedientearen bidez eginkizun-gabetzearen zehapena jaso dutenak zerrendetatik kanpo geldituko dira, aldi baterako, aipatu eginkizun-gabetzeak dirauen bitartean, eta, hori amaitutakoan automatikoki sartuko dira berriz ere zerrendetan.

3.– d), e) eta f) letretan aipatutako egoeretan, lurralde-ordezkaritzak jakinarazpen bat igorriko dio interesdunari, eta bertan jasoko da lanpostua eskaini ziotela, horri uko egin ziola eta, beraz, zerrendatik kanporatu dutela. Zerrendatik atera aurretik, entzunaldiaren izapidea eskainiko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Gainerako kasuetan, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatuko da zerrendatik kanporatzea, bai banaka bai zerrendak barematzeko urteroko prozeduraren barruan.

45. artikulua.– Bitarteko irakasleak euren ohiko eginkizunak betetzen jarraitzeko gai ez direla zehazteko jarduera-protokoloa.

1.– 2/1993 Legearen, otsailaren 19koaren, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoaren, 25. artikulua, haren 3. atalean aurreikusten du langile funtzionarioak gerora sortutako arrazoiengatik lanpostutik kentzeko prozedura; pertsona horrek postuari dagozkion eginkizunak eraginkortasunez egitea eragozten duen gaitasun-faltarekin lotuta daude, batez ere, arrazoi horiek.

Lege horri jarraiki, bitarteko funtzionarioei edo ordezkari bitarteko funtzionarioei dagokienez, haien izendapenaren berezitasunen arabera, jarduera-protokolo hau ezarri behar da, eta, horretarako, dagokion espedientea hasi beharko da nahitaez, bai eta, hala badagokio, langileen ordezkari den organoari txostena igorri ere, adierazten den moduan.

2.– Ikastetxeko zuzendaritzaren iritsiz, pertsona bat ez bada ohiko eginkizunak betetzeko gai, tokian tokiko Lurralde Ordezkaritzari jakinaraziko dio. Lurralde ordezkariak alde aurreko jarduketa egokiak egiteko agindua emango du, eta horien artean sartuko da Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako zerbitzu medikuaren eta/edo Hezkuntzako Ikuskaritzaren txostena, kasuaren arabera. Halaber, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ere eman ahal izango du nahi dituen jarduerak gauzatzeko agindua.

Behin aurretiazko jarduerak egindakoan, langilea bere eginkizun arruntak egiteko gai ez dela uste bada, Langileak Kudeatzeko zuzendariari helaraziko zaio espedientea eta honek prozedura bat hasiko du ebazpen baten bidez, eta Hezkuntza Ikuskaritzako kide bat izendatuko du horren instrukzioa egiteko; gainera, espresuki adieraziko du zer ondorio sor daitekeen espedientearen amaieran.

3.– Prozedura horren xede den alderdiak hari komeni zaizkion frogak aurkezteko eskubidea duela bermatu beharko da, bai eta 30/1992 Legearen, herri-administrazioaren araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzkoaren, 84. artikuluan aurreikusten duen entzunaldi-izapidea egitekoa ere. Halaber, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak alegazio-izapidea emango dio alderi sozialari.

4.– Aldez aurreko jarduketetan edo protokoloa hasitakoan, egoerak hala aholkatzen badu, Hezkuntzako Ikuskaritzak edo instrukzioaz arduratzen denak hauxe proposa dezakete: funtzionarioa edo kontratatua aldi baterako eginkizun-gabetzea, prozedura amaitu arte. Langileak Kudeatzeko zuzendariaren arrazoizko ebazpen baten bidez erabakiko da aldi baterako eginkizun-gabetzea.

Eginkizunez gabetuta dagoen bitartean (inoiz ez sei hiletik gora), funtzionarioak edo kontratatuak dagozkion oinarrizko ordainsariak osorik jasotzen jarraituko du. Prozedura amaitzen bada izendapena errebokatzearekin edo indarreko kontratua suntsiaraztearekin eta izangaia zerrendetatik baztertzearekin, funtzionarioak edo kontratatuak nahitaez itzuli beharko du aldi baterako eginkizun-gabetzeak iraun duen denboran jasotakoa. Prozedura ez bada horrela amaitzen, Administrazioak diferentzia itzuliko du, hau da, benetan jasotakoaren eta eskubide guztien jabe izanda jaso beharko litzatekeenaren arteko aldea. Edonola ere, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak 98. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

5.– Instrukzioak behar diren jarduerak gauzatu dituzten prozedura ebazteko oinarri izango diren datuak zehazteko, jakiteko eta egiaztatzeke, eta beharrezko irizten dituen txostenak eskatu dituzte; adibidez, komenigarri irizten badu, dagokion pertsonaren mediku-azterketa bat eska dezake, eta Hezkuntzako dagokion lurralde-ordezkaritzako mediku-zerbitzuaren bidez izapidetu beharko da hori.

6.– Instrukzio-egileak Langileak Kudeatzeko Zuzendariari aurkeztuko dio proposamena, eta hark amaituko du prozedura ebazpen baten bidez.

Prozeduran egiaztatzen bada ohiko eginkizunak betetzeko gaitasun-gabezia nabarmena gertatzen dela, hauxe erabakiko du apiatu ebazpenak: izendapena errebokatzea edo indarreko kontratua suntsiaraztea eta eragindako pertsona zerrendetatik baztertzea. Bestela, egindako jarduketan largespina edo artxiboa jasoko da ebazpenean.

7.– Gaitasunik eza eta, ondorioz, zerrendatik baztertzea berriz ere azter daitezke, baldin eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren edo Hezkuntzako Ikuskaritzaren txostenak –zein egokitzen den – hala proposatzen badu, eta Langileak Kudeatzeko zuzendariak, txostena ikusita, hala jasotzen badu beren-beregi bere ebazpenean. Hori gertatuz gero, aipatu txostenek diotena ikusita, hauek utziko dira jasota: berrikuspen hori eragingo luketen baldintzak edo arrazoiak, zer iraunaldi izango lukeen eta zer jarraipen edo ondorengo azterketa egingo den gerora, berriro zerrendetan sartzea ekar baitezake.

46. artikulua.– Bitarteko irakasleak ezaugarri berezietako lanpostuetan irakasteko egoki diren edo ez erabakitzekeo jarduera-protokoloa.

1.– Ikastetxeetako langileria osatzerakoan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lanpostu jakin batean eman beharreko curriculum-eduki espezifikokoari buruzko informazioa eman ahal izango du, eta gerta daitezke postu hori betetzeko langile-profil berezi bat eduki behar izatea.

2.– Postu horiek eskaintzen direnean, hezkuntza-administrazioak curriculum-eduki horren inguruan eskuragarri dagoen informazio guztia emango du.

Lanbide Heziketako lanpostuak badira, horiek osatzen dituzten lanbide-moduluen eta heziketa-zikloen izena ere adieraziko du. Eskaintzen den lanpostuaren profila osatzen duten lanbide-moduluekin lotutako gaitasunei buruzko informazioa ere emango die hautagaiei.

Lanpostua esleitu ondoren, ikastetxeak ezin izango du lanpostuaren berariazko profil hori aldatu, eta hasieran zehaztutakoari eutsiko zaio.



3.– Ikastetxeko zuzendaritzaren iritziz hautagaiak lanpostua betetzeko gaitasunik ez badu, honela jokatu da:

a) Ikastetxeko zuzendariak Hezkuntza Ikuskaritzari eskatuko dio azter dezala hautagaiak berriazko irakaskuntza-gaitasun hori duen ala ez. Ikuskariak, halaber, ikastetxeaz kanpoko aditu baten iritzia eska dezake.

b) Prozedura horren xede den alderdiak hari komeni zaizkion frogak aurkezteko eskubidea duela bermatu beharko da, bai eta 30/1992 Legearen, herri-administrazioaren araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzkoaren, 84. artikuluan aurreikusten duen entzunaldi-izapidea egitekoa ere. Halaber, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak alegazio-izapidea emango dio alderi sozialari.

c) Hezkuntza Ikuskaritzak Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzari aurkeztuko dio haren proposamena, eta eskabideak oinarririk ez duen edo hautagaia postutik kendu beharra dagoen adieraziko du.

4.– Lanpostua esleitu zaion hautagaiak ikastetxean agertu, eta eman zaion zeregina betetzeko gai ez dela adierazten badu, uko egiteko eskaria egin diezaioke Hezkuntzako Ikuskaritzari. Aurreko atalean xedatutakoari jarraiki izapidetuko da eskari hori.

5.– Hautagaia postutik kenduz gero, ez diote berriz deituko antzeko ezaugarriak dituen postu bat betetzeko; halere, beste profil espezifiko bat duten postuak estaltzeko dei diezaiokete gerora.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Ikasturte hasieran postuak esleitzea.

Ikasturte hasieran zerrendako lagunei lanpostuak esleitzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2011ko uztailaren 15ean emandako aginduan aurreikusitakoa beteko da; agindu horren bidez, ikasturte-hasierako esleipen-prozesua arautu zuen, irakasleen kidegoetan sartzeko edo kidego horietara heltzeko prozesuetako praktikaldia egin behar duten lagunentzat eta irakasleen ordezkogaien zerrendako kideentzat.

Bigarrena.– Zerrendetan sartzeko eta horietan mantentzeko baldintzak aldatzea.

Ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendan dauden pertsonak, agindu hau indarrean jartzean, zerrenda horretan geldituko dira, eta urteko birbarematze-prozesuen ondoren egingo diren zerrendetan ere bai, agindu honek zerrendetan sartzeko baldintzetan egiten dituen aldaketak gorabehera, laugarren xedapen gehigarrian agindutakorako izan ezik. Edonola ere, agindu honen I. eranskinean jasotako baremoa aplikatuko zaie.

Edozein egoera dela-eta, espezialitatea galtzen dutenak, agindu honetan eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen badituzte soilik itzuli ahal izango dira espezialitate horretara.

Hirugarrena.– Hizkuntza Laguntzako eta Kultura Klasikoko irakasleen zerrendak sortzea.

Agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera deituko den birbarematze-prozesuan, honako zerrenda hauek sortuko dira:

a) Bigarren Hezkuntzako Hizkuntza Laguntzako Irakasleak (HLI); Bigarren Hezkuntzan honako espezialitate hauetako zerrendetan dauden pertsonak bilduko ditu: «Gaztelania eta Literatura», «Euskara eta Euskal Literatura», «Geografia eta Historia», «Latina», «Grekoa», «Ingelesa», «Frantsesa», «Alemana» eta «Filosofia».



b) Haur eta Lehen Hezkuntzako Hizkuntza Laguntza Irakasleak (HLI); bertan, Lehen Hezkuntzako espezialitateko zerrendako hautagaiak sartuko dira, 2. hizkuntza-eskakizuna (2. HE) edo baliokidea egiaztatu dutenak.

c) Bigarren Hezkuntzako Kultura Klasikoa, Bigarren Hezkuntzako Latineko eta Grekoko espezialitateetako zerrendetako hautagaiak biltzen dituena.

Zerrenda horietako hautagaiak ez badute zerrenda horietan jarraitu nahi, hori adierazi beharko dute aipatutako birbarematze-prozesuan, aukerak aldatzeko ezartzen den epean.

Laugarrena.– Arte Plastikoetako eta Diseinuko zerrendak berrantolatzea.

Hona hemen Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzen egitura berria:

1.– Bigarren Hezkuntza, Hizkuntzen eta Arteen Irakaskuntzak.

1) Honako zerrenda hauek kentzen dira:

786 - Zeramika-apainketaren teknikak

787 - Proiektuen tailerra

788 - Eraikuntza-tailerrak

790 - Tailerra

1786- Kimika aplikatua

2) Honako zerrenda hauek sortzen dira, III. eranskinean azaltzen diren titulazio-baldintzekin:

1607 - Marrazketa artistikoa eta kolorea

1608 - Marrazketa teknikoa

1621 - Ikus-entzunezko baliabideak

1623 - Industria-antolakuntza eta –legeria

1625 - Bolumena

3) Espezialitate zaharretako zerrendak berrietakoetara egokitzen dira, III. eranskinean azaltzen diren titulazio-baldintzekin:

| Zerrenda zaharrearazko izena | Zerrenda berriazko izena |
|--|--|
| 1708 Diseinu Grafikoaren Teknikak | 1612 Diseinu Grafikoa |
| 1718 Ordenagailuz Lagundutako Diseinu Grafikoa | 1627 Baliabide Informatikoak -Diseinu Grafikoa |
| 1765 Ordenagailuz Lagundutako Diseinua | 1628 Baliabide Informatikoak -Barnealdean Diseinua |
| 1769 Dekorazio Artearen Proiektuak | 1609 Barnealdean Diseinua |
| 1788 Eraikuntza-elementuak | 1620 Materialak eta Teknologia: Diseinua |



Zerrenda berrietan espezialitate zaharretako zerrendetako hautagaiak sartzeko, beharrezkoa izango da agindu honetan baldintza modura ezartzen den titulazioa izatea edo agindu hau indarrean sartu baino lehenago nor bere espezialitatean lanean aritu izana.

4) Honako zerrenda hauetako baldintzak aldatzen dira, III. eranskinean adierazitakoaren arabera:

1702 Artearen historia

1729 Argazkigintza

Zerrenda berrietan hautagaiak mantentzeko, beharrezkoa izango da agindu honetan baldintza modura ezartzen den titulazioa izatea edo agindu hau indarrean sartu baino lehenago nor bere espezialitatean lanean aritu izana.

2.– Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzak (Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lantegiko Irakasleen kidegoaren espezialitateak).

Honako zerrenda hauek sortzen dira, III. eranskinean azaltzen diren titulazio-baldintzekin:

1658 Argazkigintza eta erreprodukzio-prozesuak

1659 Modelismoa eta maketagintza

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.– Arau hau argitaratu ondorengo lehenengo barematze-prozesua.

Agindu hau argitaratu ondorengo lehenengo birbarematze-prozesutik aurrera aplikatuko dira merezimenduak barematzeko irizpide berriak, agindu honen I. eranskinean jasotakoak.

Bigarrena.– Hautagaiak zonaldeak aukeratzea.

Agindu honen 6.c) artikuluan ezarritakoari jarraiki, hautagaiak zonalde batzuk aukeratu ahal izango dituzte aldi baterako ordezkapenak egiteko; aukera horrek, ordea, zerrenda informatikoki kudeatzeko aplikazioak, agindu honen 38. artikuluan aipatzen direnak, ezartzen direnetik aurrera soilik izango ditu ondorioak.

Hala ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak atzeratu egin ahal izango ditu aukera horiek harik eta hautagaien zerrenda birbarematzeko hurrengo prozesua egin arte.

Hirugarrena.– Irakasleak erlijioeko zerrendetan sartzea.

Agindu hau indarrean sartzen denean dauden erlijioeko zerrendetan sartutako hautagaiak agindu honek arautzen dituen zerrendetan ere sartuko dira.

2012ko irailaren 1etik aurrera sartuko dira, eta horretarako, birbarematu egingo dira agindu hau argitaratu ondoren egingo den prozesuan.

Laugarrena.– Zerrenda garbitzea: Zein birbarematze-prozesutik aurrera.

Zerrenda garbitzea, Agindu honen 25. artikuluan ezarrita, 2017/2018 ikasturterako birbarematze-prozesutik aurrera indarrean jarriko da.



XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariak 2004ko maiatzaren 26an emandako ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko hautagaien zerrenda kudeatzeko jarraibideak onartu zituen, indargabetzen du Agindu honek.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Oposizioko nota.

Uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituenak, 17.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, LOEren hamazazpigarren xedapen iragankorrean zehaztutako lan-eskaintza publikoen deialdiak amaitu ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kontuan hartuko du baita ere Lan Eskaintza Publikoen inguruan gerora egingo diren hautapen-prozesuetan lortutako nota, baremoko gainerako elementuen artean. Elementu hori baremoan sartzekotan, halakorik egiten bada, Batzorde Paritarioarekin adostu beharko da aurrez.

Bigarrena.– Titulazio eta baliokidetzak berriak sartzea.

Agindu honen bidez, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari gaikuntza ematen zaio, premia badago eta dagokion ebazpenaren bidez, ordezkaritza sindikalarekin dagokion negoziazioa egin ondoren, ikasturtean zehar eta bereziki birbarematze-prozesu bakoitza hasi aurretik, titulazio edo espezialitate berriak sar ditzan; hain zuzen ere, III. eranskinen titulazioen eta espezialitateen taulan jasotako espezialitateen bat emateko gaitzen duten titulazio berriak edo Irakasleen Prestakuntzako master-tituluen espezialitate berriak. Era berean, lehendik daudenak aldatzeko eskumena ematen zaio, akatsak aurkitzen badira edo dagokion txostenaren ondoren.

Ildo horretatik, Zuzendaritza berari ematen zaio eskumena baliokidetzak finka ditzan hauek kontuan hartuta: alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko unibertsitateen gradu-titulazioen edo Irakasleen Prestakuntzako master-tituluen espezialitateak, eta, bestetik, III. eranskinen titulazioen eta espezialitateen taulan agertzen direnak; horretarako, aztertu beharreko titulazioen ikasketa-planei begiratuko zaie, baita agindu honen 10. artikuluen bosgarren lerrokadan Irakasleen Prestakuntzako master-tituluen espezialitateei buruz esaten denari ere. Berriro barematzeko prozesu bakoitzari ekin baino lehen argitaratuko da finkatutako baliokidetzaren zerrenda; argitaratu ere, www.hezkuntza.net web orrian eta irakaslegunea ingurunean. Baliokidetzak horiek Agindu honetan araututako ondorioetarako baino ez dira.

Batzorde bat eratuko da horretarako, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzako teknikari batek, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari batek, Unibertsitate Zuzendaritzako teknikari batek eta Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari batek osatua. Batzorde horrek aztertuko ditu sartzeko berriak, aldaketak eta baliokidetzak, eta dagozkion proposamenak egingo dizkio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari. Kasu bakoitzean zer gai aztertu behar den, aholkulari espezialistak izenda daitezke.

Hirugarrena.– Indarrean sartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 27a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.



I. ERANSKINA
MEREZIMENDUEN BAREMOA

A) Orokorrak.

| 1.– Irakaskuntzako esperientzia. | Puntuazio-mugarik gabe. | |
|---|-------------------------|--|
| <p>1.1.– Euskal Autonomia Erkidegoko, Hezkuntza Ministerioko (ME), beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko estatu kideen hezkuntza-sareko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan emandako bi hilabeteko zerbitzuko, irakaskuntza arautuetan.</p> | <p>Puntu 1.</p> | <p>Herri-ikastetxeetan emandako zerbitzuak izendapenaren edo kontratuaren eta lanpostu-uztearen fotokopia konpultsatuen bidez egiaztatuko dira. Zerbitzu-orri konpultsatua ere erantsiko zaio aurrekoari, autonomia-erkidego honetatik kanpo emandako zerbitzuak egiaztatzeko.</p> <p>Birbarematze-prozesuetan ofizioz barematuko dira jadanik zerrendan dauden hautagaiek autonomia-erkidego honetako herri-ikastetxeetan emandako zerbitzuak.</p> <p>Europar Batasuneko estatu kideetako herri-ikastetxeetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, gainera, dagokion hezkuntza-administrazioaren agiria ere aurkeztu beharko da -zinpeko itzulpenarekin batera-, ikastetxea publikoa dela eta emandako irakaskuntzak arautuak direla egiaztatzeko.</p> |
| <p>1.2 – 1.1 puntuan kontu daitezkeen zerbitzuen hilabete bakoitzeko, horiek zailtasun edo interes bereziko gisa sailkatutako lanpostuetan benetan eman badira, zenbaketa gehigarria:</p> | <p>0,5 puntu.</p> | |
| <p>1.3.– Administrazio-baimena duten unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuetan eta 1.1. atalean aipatutakoak ez diren erakundeen mendeko herri-ikastetxeetan emandako bi hilabeteko zerbitzuko, irakaskuntza arautuetan:</p> | <p>0,33 puntu.</p> | <p>Ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak agiri hauek aurkeztuta egiaztatuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria, Ikuskaritzak ontzat emana, zerbitzuaren iraunaldia eta irakaskuntza zer mailatan eman den jasotzen duena, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua. – GSDOk emandako ziurtagiria, ikastetxearen (enpresaren) izena eta alta- aldia(k) jasoko d(it)uena. |



| 1.– Irakaskuntzako esperientzia. | Puntuazio-mugarik gabe. | |
|---|-------------------------|--|
| 1.4.– Euskal Autonomia Erkidegoko herri-ikastetxeen sarera bildutako ikastetxeetan emandako bi hilabeteko zerbitzuko, irakaskuntza arautuetan, ikastetxea sarera bildu baino lehenago emandakoa bada zerbitzua: | 0,5 puntu. | Ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak bezala egiaztatuko dira. |

Oharrak

Ondorio horietarako, urtea 360 egun eta hila 30 egun dela ulertzen da.

Lanaldi partzialean emandako zerbitzuak lanaldi osoan emandakoen puntuazio berarekin barematuko dira.

Aldi berean bi ikastetxetan edo gehiagotan zerbitzu eman bada, horietako mesedegarriena soilik izango da kontuan.

| 2.– Prestakuntza akademikoa. | | |
|--|---|---|
| 2.1.– Eskakizun gisa alegatutako titulazioari dagokion espediente akademikoko batez besteko nota balioetsiko da, honako taula honi jarraiki: | 9tik 10era puntu 1. 7tik 8,999ra 0,75 puntu. 6tik 6,999ra 0,50 puntu. 5etik 5,999ra 0,25 puntu. | Espedientearen batez besteko nota jasotzen duen ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da. Atzerriko titulu homologatuak badira, zinpeko itzulpenarekin batera aurkeztu beharko dira ziurtagiri akademikoak. |
| 2.2.– Bestelako gradu-titulua edo lizentziaturak: | Puntu 1. | |
| 2.3.– Beste diplomatura batzuk: | 0,5 puntu. | |
| 2.4.– Master Titulu Ofiziala (urriaren 29ko 1393/2007 EDk araututakoa): | 0,5 puntu. | |
| 2.5.– Doktore-titulua: | Puntu 1. | |

Oharrak

1. – Batez besteko nota zenbakitan agertzen ez bada, baliokidetasun hauek hartuko dira kontuan:

Ohorezko matrikula – 10

Bikain – 9.5

Oso ongi – 8

Ongi – 6.5

Nahikoa, Gainditua, Baliokidetua, Gai – 5.5



2. – Ikasketa-espeditenteko batez besteko nota 0 eta 4 arteko zenbaki-eskalan soilik adierazita badago, batez besteko notaren eta taula honen arabera esleituko zaio puntuazioa:

3tik 4ra – puntu 1

2tik 2,99ra – 0,75 puntu

1,50etik 1,99ra – 0,50 puntu

1etik 1,49ra – 0,25 puntu

3. – Espedientean hizkitan eta zenbakitan agertzen bada batez besteko nota, azken hori hartuko da kontuan.

4. – Ikasketa-ziurtagirian batez besteko nota agertzen ez bada, edo ikasketa-ziurtagiri pertsonala igortzen ez bada, eta horren ordez tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulu emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria aurkezten bada, izangaiaren batez besteko nota «gainditua» dela ulertuko da, eta 0,25eko puntuazioa emango zaio.

5. – 2.2. eta 2.3. ataletan ez da kontuan hartuko maila bakoitzean sartzeko oro har eskatzen diren titulazioak, ondoren esaten direnak:

– Haur eta Lehen Hezkuntza: maisu/maistraren, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakaslearen edo Lehen Hezkuntzako maisu/maistraren tituluak, edo dagokion gradu-tituluak.

– Bigarren Hezkuntza: Arte Plastikoak eta Diseinua (Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kidegoari erreserbatutako irakasgaiak), Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakaskuntzak, Musikako irakaskuntzak eta Arte Dramatikoaren eta Dantzaren Goi-mailako irakaskuntza artistikoak: doktorearen, lizentziadunaren, arkitektoaren edo ingeniariaren tituluak edo dagokion gradu-tituluak.

– Lanbide Heziketa eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoari edo Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lantegiko maisu-maistren kidegoari erreserbatutako irakasgaiak): diplomatuaren, arkitekto teknikoaren, ingeniari teknikoaren tituluak edo dagokion gradu-tituluak.

Adierazitako tituluetak bat baremaziotik baztertzen bada, izangaia dagoen zerrendako mailaren arabera, dituen gainerako tituluak barematuko dira.

Izangaia zer zerrendatan dagoen, zerrenda horren mailarako goian adierazi tituluetak bat ere ez badu, eta bai, ordea, zerrenda horretan sartzeko aukera ematen duen maila apalagoko bestelako tituluren bat, azken hori ez zaio barematuko, eta izangai horrek dituen gainerako tituluak zenbatuko dira.

6. – 2.4 atalean ez da kontuan hartuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntza Irakaskuntzetako irakasleen Prestakuntzako unibertsitate-masterra.



B) Honakoei soilik aplikatuko zaie: Lanbide Heziketari (Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoari gordetako irakasgaiak) eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzei (Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lantegiko maisu-maistren kidegoari gordetako irakasgaiak).

| 3.– Lan-esperientzia espezialitatean. | Gehienez: 15 puntu. | |
|--|---------------------|--|
| 3.1.– Espezialitatean izandako lan-esperientziako hilabete bakoitzeko: | 0,25 puntu. | <p>Honako agiri hauek aurkeztuta egiaztatuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Enpresak emandako ziurtagiria, zerbitzuen iraupena jasotzen duena, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua. Edonola ere, justifikatzeko aurkezten den agiriak zer lan egin den zehaztu beharko du. – GSDOk emandako ziurtagiria, enpresaren izena eta alta-aldiak jasotzen dituen. – Administrazioaren mendeko herri- ikastetxeetan gauzatzen duen jarduera beste jarduera batekin bateragarria dela onartzen duen ebazpenaren kopia, jarduera hori aldi berean egin bada. |

Oharrak

Hautagaiak beharrezko titulazioa eskuratu zuen egunetik aurrera hasiko da zenbatzen esperientzia.



C) Musikako irakaskuntzari soilik aplikatzeko.

| | | |
|--|--|--|
| 4.– Musika-jarduera. | Gehienez: 15 puntu. | |
| 4.1.– Kontzertuak (*). | Gehienez 15. | Jatorrizko programa edo fotokopia konpultsatua edo erakunde antolatzailearen ziurtagiria |
| 4.1.1.– Kontzertu-aretoetan eta/edo nazioko edo nazioarteko zikloetan emandako kontzertu bakoitzeko, honela parte hartuta: | | |
| 1. Bakarlari gisa. | 0,75 | |
| 2. Bakarlari gisa, orkestra edo bandarekin. | 0,75 | |
| 3. Talde bateko zuzendari gisa. | 0,75 | |
| 4. Ganbera-taldeko musikari gisa. | 0,50 | |
| 4.1.2.– Beste kontzertu batzuk (*): | Gehienez 5. 0,10 kontzertu bakoitzeko. | |
| 4.2.– Orkestra sinfoniko, ganbera-orkestra edo banda bateko kide izatea: | Gehienez 10. 1 urteko. | Kontratua. |
| 4.3.– Orkestra sinfonikoan, ganbera-orkestran edo bandan lankide gisa jardutea: | Gehienez 7,5. 0,10 parte-hartze bakoitzeko. | Orkestraren ziurtagiria, kontratuak edo programak hautagaiaren izena agertuz gero. |
| 4.4.– Interprete gisa egindako grabazioak: | Gehienez 7,5 | Jatorrizko karatula edo fotokopia konpultsatua, hautagaiaren izena jasotzen duena. |
| 4.4.1.– Bakarlari gisa, bakarlari gisa orkestra edo bandarekin, zuzendari gisa edo ganbera- musikari gisa: | 1,25 | |
| 4.4.2.– Beste talde batzuk: | 0,50 | |
| 4.5.– Konpositore gisa egindako grabazioak: | Gehienez 7,5 | Jatorrizko karatula edo fotokopia konpultsatua, hautagaiaren izena jasoko duena. |
| – Eskatzaileak grabatutako obra bakoitzeko: | 1,25 | |



| 4.– Musika-jarduera. | Gehienez: 15 puntu. | |
|--|---------------------|---|
| 4.6.– Konposizioa. | Gehienez 15 | Jatorrizko programa edo fotokopia konpultsatua edo erakunde antolatzailearen ziurtagiria. |
| 4.6.1.– Eskatzaileak estreinatu duen obra bakoitzeko. | 0,50 | |
| 4.6.2.– Obra beraren interpretazio bakoitzeko (gehienez 0,5 puntu obrako). | 0,25 | |
| 4.7.– Nazioko edo nazioarteko lehiaketetan lortutako sariak: | Gehienez 5 | Dagozkien egiaztagirien jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak. |
| 4.7.1.– Lehen saria. | 1,25 | |
| 4.7.2.– Bigarren eta hirugarren saria. | 0,75 | |
| 4.7.3.– Accesita. | 0,25 | |
| 4.8.– Gazte-orkestra batean emandako aldiak: | Gehienez 2,50 | Dagokion gazte-orkestrak emandako egiaztagiri ofiziala. |
| Gazte-orkestretako lan-aldiak (topaketak) espezialitateko tresnarekin: | (0,25 bakoitzeko) | |

Oharrak

4.1.– atalean ez dira sartzen musika-ikastetxeetan irakaskuntza-jarduera gisa antolatutako entzunaldiak eta/edo kontzertuak.

Musika-jarduera barematzeko, batzorde barematzaileak era daitezke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren ebazpen bidez izendatuta.



D) Arte Dramatikoaren Goi-mailako irakaskuntza artistikoei soilik aplikatzeko

| 5.– Jarduera artistikoa ARTE DRAMATIKOA | Merezimenduak: 15 puntu, gehienez ere. | Aurkeztu beharreko agiriak |
|--|--|--|
| 5.1.– Aktore gisa izaniko jardun profesionala | (15, gehienez) 0,75 parte hartzen duen obrako | Antolatzailearen jatorrizko programa edo jatorrizko ziurtagiria, zeinetan interesdunaren izena agertzen baita. |
| 5.2.– Eszenografiko edo dramagile gisa izaniko esperientzia profesionala. | 0,50 obrako | Antolatzailearen jatorrizko programa edo jatorrizko ziurtagiria, zeinetan interesdunaren izena agertzen baita. |
| 5.3.– Antzerki profesionaleko konpainia baten partaide izatea | (10, gehienez) 1 urteko | Lan-kontratuaren fotokopia konpultsatua |
| 5.4.– Bestelako jarduerak* | 0,25 | Ziurtagiriak, kontratuak edo programak, zeinetan izangaiaren izena agertzen baita. |
| 5.5.– Dramagile gisa estreinatutako obrak | 1 obrako | Ziurtagiriak, kontratuak edo programak, zeinetan izangaiaren izena agertzen baita. |
| 5.6.– Lanbide eremuarekin zerikusia duten sariak estatu- eta nazioarte-mailako lehiaketa eta sariketetan Lehenengo saria Bigarren eta hirugarren sariak Accesita | (5, gehienez) 1,25 0,75 0,25 | Dagozkien jatorrizko egiazttagiriak edo horien fotokopia konpultsatuak. |
| 5.7.– Arte Dramatikoko Goi-mailako irakaskuntzekin zerikusia duten argitalpenak (elektronikoak edo paperean). – Arte Dramatikoko Goi-mailako irakaskuntzekin zerikusia duten artikuluak edo liburuen atalak. – Argitaratutako liburuko | (7,5 gehienez) 0,25 0,50 | Dagozkion aleak |



| | | |
|---|--|--|
| 5.– Jarduera artistikoa ARTE DRAMATIKOA | Merezimenduak: 15 puntu, gehienez ere. | Aurkeztu beharreko agiriak |
| 5.8.– Arte Dramatikoarekin zerikusia duten erakundeetan izandako lanpostuak edo karguak. | (2, gehienez) 0,50 urteko | Agintaritza eskudunak eginiko izendapenak edo kargugabetzeak |
| 5.9.– Arte Dramatikoko Goi-mailako irakaskuntzekin zerikusi zuzena duten prestakuntza-ikastaroak, 20 ordukoak gutxienez, eta azken 10 urteetan eginak. | (1, gehienez) 0,25 ikastaroko | Dagokion ziurtagiria |
| 5.10.– Europar Batasuneko estatukideetako unibertsitateko ikastetxe publikoetan, Arte Dramatikoko goi-mailako irakaskuntza arautuetan emandako bi hileko zerbitzuko | puntu 1 | Izendapen edo kontratuaren eta kargugabetzearen fotokopia konpultsatua edo, halakorik balego, zerbitzu horiek eman izana egiaztatzen duen zerbitzu-orria. Ikastetxea publikoa dela eta emandako irakaskuntza arautuak direla egiaztatzen duen unibertsitatearen agiria aurkeztu beharko da –zinpeko itzulpenarekin–. |
| 5.11.– Europar Batasuneko estatukideetako unibertsitateko ikastetxe pribatuetan, Arte Dramatikoko goi-mailako irakaskuntza arautuetan emandako bi hileko zerbitzuko | 0,33 puntu | Ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria, zerbitzuaren iraunaldia eta irakaskuntza zer mailatan eman den jasotzen duena, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua. Ikastetxea pribatua dela eta emandako irakaskuntza arautuak direla egiaztatzen duen unibertsitatearen agiria aurkeztu beharko da –zinpeko itzulpenarekin–. |

* 5.4 atalean bazter uzten dira Arte Dramatikoko ikastetxeetan irakaslan gisa antolatutako jarduerak.



E) Dantzaren Goi-mailako irakaskuntza artistikoei soilik aplikatzeko.

| 6.– Jarduera artistikoa DANTZA | Merezimenduak: 15, gehienez | Aurkeztu beharreko agiriak |
|---|---|--|
| 6.1.– Dantzari bakarlari edo zuzendari gisa egindako jardunak | (15, gehienez) 0,75 parte hartzen duen ekoizpeneko | Antolatzailearen jatorrizko programa edo jatorrizko ziurtagiria, zeinetan interesdunaren izena agertzen baita. |
| 6.2.– Taldeko dantzari gisa edo dantza-gorputz gisa egindako jardunak | 0,50 ekoizpeneko | Antolatzailearen jatorrizko programa edo jatorrizko ziurtagiria, zeinetan interesdunaren izena agertzen baita. |
| 6.3.– Dantza profesionaleko konpainia baten partaide izatea | (10, gehienez) 1 urteko | Lan-kontratuaren fotokopia konpultsatua |
| 6.4.– Bestelako jarduerak* | 0,25 | Ziurtagiriak, kontratuak edo programak, zeinetan izangaiaren izena agertzen baita. |
| 6.5.– Estreinatutako edo koreografo gisa erregistratutako koreografiak | (15, gehienez) 1 koreografiako | Ziurtagiriak, kontratuak edo programak, zeinetan izangaiaren izena agertzen baita. |
| 6.6.– Lanbide eremuarekin zerikusia duten sariak estatu-eta nazioarte-mailako lehiaketa eta sariketetan Lehenengo saria Bigarren eta hirugarren sariak Accesita | (5, gehienez) 1,25 0,75 0,25 | Dagozkien jatorrizko egiaztagiriak edo horien fotokopia konpultsatuak. |
| 6.7.– Dantzako Goi-mailako irakaskuntzekin zerikusia duten argitalpenak (elektronikoak edo paperean). – Dantzako Goi-mailako irakaskuntzekin zerikusia duten artikulua edo liburuen atalak. – Argitaratutako liburuko | (7,5 gehienez) 0,25 0,50 | Dagozkion aleak |
| 6.8.– Dantzarekin zerikusia duten erakundeetan izandako postuak edo karguak. | (2, gehienez) 0,50 urteko | Agintaritza eskudunak eginiko izendapenak edo kargugabetzeak |



| 6.– Jarduera artistikoa DANTZA | Merezimenduak: 15, gehienez | Aurkeztu beharreko agiriak |
|---|----------------------------------|---|
| 6.9.– Dantzaren Goi-mailako irakaskuntzekin zerikusi zuzena duten prestakuntza-ikastaroak, 20 ordukoak gutxienez, eta azken 10 urteetan eginak. | (1, gehienez) 0,25 ikastaroko | Dagokion ziurtagiria |
| 6.10.– Europar Batasuneko estatukideetako unibertsitateko ikastetxe publikoetan, Dantzako goi-mailako irakaskuntza arautuetan emandako bi hileko zerbitzuko | puntu 1 | Izendapen edo kontratuaren eta kargugabetzearen fotokopia konpultsatua edo, halakorik balego, zerbitzu horiek eman izana egiaztatzen duen zerbitzu-orria. Ikastetxea publikoa dela eta emandako irakaskuntza arautuak direla egiaztatzen duen unibertsitatearen agiria aurkeztu beharko da –zinpeko itzulpenarekin–. |
| 6.11.– Europar Batasuneko estatukideetako unibertsitateko ikastetxe pribatuetan, Dantzako goi-mailako irakaskuntza arautuetan emandako bi hileko zerbitzuko | 0,33 puntu | Ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria, zerbitzuaren iraunaldia eta irakaskuntza zer mailatan eman den jasotzen duena, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua. Ikastetxea pribatua dela eta emandako irakaskuntza arautuak direla egiaztatzen duen unibertsitatearen agiria aurkeztu beharko da –zinpeko itzulpenarekin–. |

* 6.4. atalean bazter uzten dira Dantzako ikastetxeetan irakaslan gisa antolatutako jarduerak.

Oharrak

1.– Azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuak, abenduaren 12ko 2063/2008 Errege-Dekretuak aldatutakoa, ezarritakoa betez ISBN-a edo kasuan kasuko ISSN-a edo ISMN-a izatera behartuta dauden argitalpenek hori ez badute, ez dira balioetsiko ezta argitalpenaren egilea eta editorea pertsona bera bada ere.

Ondoko argitalpen hauek ez dira barematuko: programazioak, oposiziotako ikasgai-zerrendak, unitate didaktikoak, klaseko esperientziak, ikasleentzako ariketen edo lanen bildumak, karrerako irakasgaietako lanak, legeria, ikerlan deskriptibo eta enumeratiboak, egunkarietan argitaratutakoak, hitzaurreak eta iritzi-artikuluak.

2.– Arte Dramatikoa eta Dantza espezialitateen D) eta E) ataletan aurreikusitako berariazko merezimenduak barematzeko, batzorde barematzaileak eratu dira, zeinak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez izendatuko baitira. Kasu bakoitzean zer gai aztertu behar den, bada, horretarako, aholkulari espezialistak izenda daitezke.

II. ERANSKINA

ESPEZIALITATEAK ETA IRAKASGAIAK

A) HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN

HEZKUNTZA. MAISU-MAISTREN KIDEGOA

| Irakasgaiaren kodea | Izena |
|---------------------|--|
| 0950 | Haur Hezkuntza |
| 0951 | Lehen Hezkuntza |
| 0952 | Euskara |
| 0953 | Aholkularia |
| 0954 | Ingelesa |
| 0955 | Frantsesa |
| 0956 | Gorputz Hezkuntza |
| 0957 | Musika |
| 0958 | Hezkuntza Berezia: Pedagogia Terapeutikoa |
| 0959 | Hezkuntza Berezia: Entzumena eta Hizkuntza |
| 0982 | Erljio Katolikoa |
| 1080 | Hizkuntza indargarria |

B) BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE

HEZIKETA B.1.- BIGARREN HEZKUNTZAKO

IRAKASLEEN KIDEGOA

| Irakasgaiaren kodea | Izena |
|---------------------|-------------------------------|
| 0102 | Frantsesa |
| 0103 | Ingelesa |
| 0104 | Alemana |
| 0105 | Euskara IRALE |
| 0106 | Euskara eta Euskal Literatura |
| 0108 | Erljio Katolikoa |
| 0124 | Geografia eta Historia |
| 0126 | Latina |
| 0127 | Grekoa |
| 0131 | Musika |
| 0132 | Filosofia |
| 0133 | Italiera |
| 0134 | Gaztelania eta Literatura |



| | |
|------|---|
| 0146 | Kultura Klasikoa |
| 0202 | Fisika eta Kimika |
| 0205 | Ekonomia |
| 0224 | Matematika |
| 0237 | Informatika |
| 0239 | Marrazketa |
| 0255 | Biologia eta Geologia |
| 0256 | Hezkuntza Orientabidea |
| 0298 | Laneko prestakuntza eta orientabidea |
| 0327 | Gorputz Hezkuntza |
| 0401 | Teknologia |
| 0986 | Curriculum desberdinak eratzeko Hizkuntza eta Gizartea |
| 0989 | Curriculum desberdinak eratzeko Zientifiko eta Teknologikoa |
| 1501 | Enpresen administrazioa |
| 1502 | Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa |
| 1503 | Elikagaien industriako prozesuak |
| 1504 | Nekazaritzako ekoizpen prozesuak |
| 1505 | Arte Grafikoetako prozesuak eta produktuak |
| 1506 | Ibilgailuak mantentzeko ant. eta prozesuak |
| 1507 | Eraikuntza zibilak eta etxegintza |
| 1508 | Fab. mekanikoko ant. eta proiektuak |
| 1509 | Energia sistemen antolakuntza eta proiektuak |
| 1510 | Sistema elektroteknikoak eta automatikoak |
| 1511 | Sistema Elektronikoak |
| 1512 | Ostalaritza eta Turismoa |
| 1513 | Komunikazio-prozesuak eta -bideak |
| 1514 | Arotzeriako eta altzarigintzako prozesuak eta produktuak |
| 1515 | Nabigazioa eta Itsas Instalazioak |
| 1516 | Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintzako Produktuak eta Prozesuak |
| 1517 | Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak |
| 1518 | Analisiak eta industria kimika |
| 1519 | Prozesu sanitarioak |
| 1520 | Prozesu Diagnostiko Klinikoak eta Produktu Ortoprotesikoak |
| 1521 | Esku-hartze soziokomunitarioa |
| 1522 | Akuikultura-prozesuak |
| 1581 | HHE Komunikazio arloa (Gaztelania) |
| 1582 | HHE Komunikazio arloa (Ingelesa) |
| 1583 | HHE Komunikazio arloa (Euskara) |
| 1584 | HHE Komunikazio arloa (Frantsesa) |
| 1585 | HHE Esparru Zientifiko Teknikoa |
| 1586 | Helduen Hezkuntza: Gizarte Ezagueraren Esparrua |
| 1970 | Hizkuntza indargarria |



B.2.- LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOA

| Irakasgaiaren kodea | Izena |
|---------------------|---|
| 1541 | Administrazio-kudeaketako prozesuak |
| 1542 | Merkataritza-prozesuak |
| 1543 | Elikagaien Elaborazio Lanak eta Ekipoak |
| 1544 | Nekazaritzako Operazioak eta Tresneria |
| 1545 | Arte Grafikoetako Produksioa |
| 1546 | Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| 1547 | Eraikuntza-proiektuen bulegoa |
| 1548 | Fabrikazio Mekanikoko Proiektuetarako Bulegoa |
| 1549 | Ekipamendu Termikoak eta Elektrizitatekoak Instalatzea eta Mantentzea |
| 1550 | Instalazio Elektroteknikoak |
| 1551 | Ekipo Elektronikoak |
| 1552 | Sukaldaritza eta gozogintza |
| 1553 | Jatetxe-arloko Zerbitzuak |
| 1554 | Irudi eta Soinuaren Teknikak eta Prozedurak |
| 1555 | Aplikazio Informatikoetako Sistemak |
| 1556 | Laborategia |
| 1557 | Prozesuen operazioak |
| 1558 | Zurgintzako eta Altzarien Fabrikazioa eta Instalazioa |
| 1559 | Makinak, Zerbitzuak eta Produksioa |
| 1560 | Makinen Mekanizazioa eta Mantentzea |
| 1561 | Soldadura |
| 1562 | Patroigintza eta jantzigintza |
| 1563 | Estetika |
| 1564 | Ile-apainketa |
| 1566 | Diagnostiko Kliniko eta Produktu Ortoprotesikoen Prozedurak |
| 1567 | Osasun eta Laguntza Prozedurak |
| 1568 | Gizartearentzako Zerbitzuak |
| 1569 | Ehungintza eta Tratamendu Fisiko eta Kimikoak |
| 1570 | Hazkuntza eta Laborantzako Instalazio eta Ekipoak |

C) HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAK

HIZKUNTZA-ESKOLA OFIZIALEKO IRAKASLEEN
KIDEGOA

| Irakasgaiaren kodea | Izena |
|---------------------|-----------------|
| 0750 | HEO Ingelesa |
| 0751 | HEO Frantsesa |
| 0752 | HEO Alemana |
| 0753 | HEO Euskara |
| 0754 | HEO Errusiera |
| 0755 | HEO Gaztelania |
| 1756 | HEO Italiara |
| 1757 | HEO Portugalera |



D) ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IRAKASKUNTZAK

D.1.- ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IRAKASLEEN KIDEGOA

| Irakasgaiaren kodea | Izena |
|---------------------|---|
| 1607 | Marrazketa artistikoa eta kolorea |
| 1608 | Marrazketa teknikoa |
| 1609 | Barrualdeen diseinua |
| 1612 | Diseinu grafikoa |
| 1620 | Materialak eta Teknologia: Diseinua |
| 1621 | Ikus-entzunezko baliabideak |
| 1623 | Industria-antolakuntza eta -legeria |
| 1625 | Bolumena |
| 1627 | Informatika-baliabideak: Diseinu grafikoa |
| 1628 | Informatika-baliabideak: Barrualdeen diseinua |
| 1702 | Artearen Historia |
| 1729 | Argazkigintza |

E) MUSIKAKO IRAKASKUNTZAK.

MUSIKAKO ETA ARTE ESZENIKOETAKO IRAKASLEEN KIDEGOA

| Irakasgaiaren kodea | Izena |
|---------------------|-------------|
| 801 | Pianoa |
| 802 | Biolina |
| 803 | Biolontxelo |
| 804 | Arpa |
| 805 | Gitarra |
| 807 | Biola |
| 808 | Kontrabaxua |
| 810 | Oboea |
| 811 | Klarinetea |
| 812 | Fagota |
| 813 | Saxofoia |
| 814 | Tronpa |
| 815 | Tronpeta |
| 816 | Tronboia |
| 817 | Tuba |
| 818 | Txistua |
| 819 | Kantua |
| 829 | Eskusoinua |



| | |
|------|--|
| 831 | Organoa |
| 851 | Perkusioa |
| 858 | Musikaren historia |
| 875 | Gitarra elektrikoa |
| 879 | Zi-instrumentuak |
| 881 | Musika-hizkuntza |
| 883 | Korua |
| 896 | Klabezina |
| 911 | Zango-biola |
| 912 | Zeharkako txirula |
| 913 | Moko txirula |
| 914 | Errenazimentuko eta Barrokoko hari pultsatua |
| 917 | Konposizioaren oinarriak |
| 922 | Orkestra |
| 1802 | Baxu elektrikoa |

F) ARTE DRAMATIKOAREN ETA DANTZAREN GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA ARTISTIKOAK
MUSIKAKO ETA ARTE ESZENIKOETAKO IRAKASLEEN KIDEGOIA

| Arte Dramatikoaren Goi-mailako ikasketa artistikoekin zerikusia duten irakaskuntza-espezialitateak | |
|--|---------------------------------------|
| Ikasgaien kodea | Izena |
| 1116 | Akrobazia |
| 1117 | Arte dramatikoari aplikatutako kantua |
| 1118 | Karakterizazioa eta jantziak |
| 1119 | Arte dramatikoari aplikatutako dantza |
| 1120 | Ebakera eta ahozko adierazpena |
| 1121 | Zuzendaritza eszenikoa |
| 1122 | Dramaturgia |
| 1123 | Espazio eszenikoa |
| 1124 | Interpretazioa |
| 1125 | Literatura dramatikoa |
| 1126 | Teknika eszenikoak |
| 1127 | Artearen teoria eta historia |
| 1128 | Antzerkiaren teoria |

| Dantzaren Goi-mailako ikasketa artistikoekin zerikusia duten irakaskuntza-espezialitateak | |
|---|--------------------------------------|
| Ikasgaien kodea | Izena |
| 1133 | Konposizio koreografikoa |
| 1129 | Dantza klasikoa |
| 1130 | Dantza garaikidea |
| 1131 | Dantzaren historia |
| 1132 | Dantzarako errepertorioa pianoarekin |